

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO NEKAZARITZA SEKTOREAN BELAUNALDIEN ARTEKO ERRELEBOA EGITEKO ESTRATEGIA INTEGRALA

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

ELIKADURA, LANDA GARAPEN,
NEKAZARITZA ETA
ARRANTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE ALIMENTACIÓN,
DESARROLLO RURAL,
AGRICULTURA Y PESCA

araba 
foru aldundia
diputación foral

 **Bizkaia**
foru aldundia
diputación foral

 **GIPUZKOA**
Foru Aldundia - Diputación Foral

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO NEKAZARITZA SEKTOREAN BELAUNALDIEN ARTEKO ERRELEBOA EGITEKO ESTRATEGIA INTEGRALA

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

ELIKADURA, LANDA GARAPEN,
NEKAZARITZA ETA
ARRANTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE ALIMENTACIÓN,
DESARROLLO RURAL,
AGRICULTURA Y PESCA

araba
foru aldundia
diputación foral

 **Bizkaia**
foru aldundia
diputación foral

 **GIPUZKOA**
Foru Aldundia - Diputación Foral

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2025

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Nagusiaren katalogoan aurki daiteke : <https://www.katalogoak.euskadi.eus/katalogobateratua>

Argitaldia 1.a, 2025eko ekaina

Ale-kopurua: 100 ale

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Saila

Internet: www.euskadi.eus

Argitaratzailea:

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz

Itzulpena: Bitez Translating Worlds

Inprimatzea:

Eusko Jaurlaritzaren Inprenta era Erreprografia Zerbitzua

ISBN: 978-84-457-3839-9

Lege-Gordailua: LG G 312-2025

EDUKIEN TAULA

1. TESTUINGURUA.....	6
2. GOBERNANTZA	7
3. DIAGNOSTIKOA	9
3.1. NEKAZARITZA-ZENTSUA	9
3.1.1. Sarrera.....	9
3.1.2. Ustiategi kopuruaren bilakaera	10
3.1.3. Premisak	10
3.1.4. Nekazaritza-ustiategiaren ezaugarri nagusiak.....	12
3.1.5. Xede-ustiategiak lurralde historikoaren eta eskualdearen arabera	14
3.1.6. Xede-ustiategiak orientazio tekniko-ekonomikoaren arabera	15
3.1.7. Ustiategi aktiboak	18
3.2. GAZTENEK PROGRAMA.....	19
3.3. ONDORIOAK	20
4. HELBURU NAGUSIAK	21
5. LAN-ARLOAK	22
5.1. ESPARRU ARAUEMAILEA.....	22
5.1.1. Nekazari Gazteen Estatutuaren (NGE) 8/2014 Dekretuaren aldaketa.....	22
5.1.2. Nekazaritza Politika Erkidearen Plan Estrategikoa (NPEPE). NPE (Nekazaritza Politika Erkidea) laguntzak kobartzeko nekazari aktiboaren kontzeptua aldatzea	23
5.1.3. Nekazaritzako test-espazioetarako eta erreleboaren sustapenerako laguntza erregulatzeko araua	23
5.2. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO NEKAZARITZA-SEKTOREA BALIARAZTEA	24
5.2.1. EAEko herritarrek nekazaritza-sektoreak gizarteari ematen dizkion balioen inguruan sentsibilizatzeko kanpaina.....	24
5.2.2. Gazte potentzialak sektorean errentagarritasun onak lortzeko ahalmenaren inguruan sentsibilizatzeko kanpaina (enpresa-ikuspegia, arrakasta-adibideak, potentzialtasuna duten sektoreak eta abar)	24
5.2.3. EAEko nekazaritza-sektoreak gizarteari ematen dizkion zerbitzu ekosistemikoen eta kanpo-efektuen ebaluazio ekonomikoa.	25
5.3. GAZTEAK SEKTORERA HURBILTZEA	26
5.3.1. Nekazaritzako test-espazio igarokorrak bultzatzea	26
5.3.2. Egonaldi praktikoak + Nekazaritzako Erasmus (gureen antzeko egitura duten ustiategietako esperientziak beste autonomia-erkidego batzuetan edo atzerrian).	26
5.3.3. Gazteen hurbilketa bultzatzeko beste modu batzuk	27
5.3.4. EAEko nekazaritza-sektorean sartzen laguntzeko gida	28
5.4. ERRELEBOAREN BEHARRA DUTEN NEKAZARITZA-USTIATEGIAK IRISPIDEAN IZATEA	29

5.4.1. Ustiategiaren bitartekotzako bulegoak sortzea	29
5.5. INSTALAZIO GAZTEA	30
5.5.1. GAZTENEK prozedura berrikustea eta hobetzea	30
5.5.2. BELAUNALDIEN ARTEKO ERRELEBOA sustatzeko laguntza: ustiategiaren kudeaketa kontratu bidez instalatzen diren gazteei lagatzen dieten ustiategiaren titularrentzako laguntza.	30
5.5.3. Inbertsioetarako laguntza-planetan: gazteentzako eta emakumeentzako baldintzak hobetzea.	31
5.5.4. Laguntza fiskalen analisia.	31
5.6. INSTALATZEN DIREN GAZTEEN FINANTZAKETA IRISPIDEAN IZATEA	32
5.6.1. SENDOTU finantza-tresna propioa abian jartzea.	32
5.7. PRESTAKUNTZA ETA AHOLKULARITZA	33
5.7.1. Prestakuntza nekazaritza-eskolen bitartez indartzea.	33
5.7.2. DIGITALIZAZIOKO, AGRITECH ALORREKO eta BERRIKUNTZAKO prestakuntza indartzea.	33
5.7.3. ARTZAIN ESKOLA eta BEHI ESKOLA mantentzea eta hobetzea.	33
5.7.4. Gazteak nekazaritza-sektorean instalatzeari lotutako aholkularitza indartzea.	34
5.7.5. Ustiategiaren lagatzaile potentzialentzako prestakuntza espezializatua.	34
5.8. BIZI-KALITATEA	35
5.8.1. Nekazaritza-jarduera egikaritzea erraztuko duten landa-inguruneetako zerbitzuak eta ekipamenduak indartzea eta hobetzea	35
6. ERANSKINAK (ZIRRIBORROA)	36
I. ERANSKINA.- NEKAZARI GAZTEEN ESTATUTUAREN (NGE) 8/2014 DEKRETUAREN ALDAKETA	36
II. ERANSKINA.- INTERES-ADIERAZPENAREN DEIALDIAREN JARRAIBIDEAK	42
III. ERANSKINA.- NPEPE-KO 6961.1 ESKU-HARTZEA: NEKAZARI GAZTEAK EZARTZEA. EGUNGO GAZTENEK PROZEDURA	44
IV. ERANSKINA.- BELAUNALDIEN ARTEKO ERRELEBOA SUSTATZEN LAGUNTZEKO DEKRETUAREN PROPOSAMENA	46
V. ERANSKINA.- SENDOTU FINANTZA-TRESNA	53
VI. ERANSKINA.- JARDUKETEN LABURPENA	53

1. TESTUINGURUA

Nekazaritza-sektoreko belaunaldien arteko erreleboa lehentasunezko problematika da bai European bai estatuan eta eskualdeetan. Europako Batzordeak estatu kideak premiatu ditu desafio horretan sakontzera, nekazaritzako elikagaien sektorearen jasangarritasunean, landa-garapenean eta lurralde-orekan duen eragin kritikoa kontuan hartuta. 2020ko nekazaritza-zentsuaren arabera, nekazaritza-ustiatzearen titularren % 30,6k 65 urte baino gehiago dituzte, eta % 10ek baino ez dituzte 40 urte baino gutxiago. Nekazaritza-ustiatzearen adin-taldearen arabera 2009. urtekoaren antzekoa da.

Euskaditik onartzen da Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioak (MAPA) gidatutako estatu-estrategiak Bruselaren eskariei erantzun nahi diela. Hala ere, estatu-estrategia hori beti ez dator bat eskualdeen berezitasunekin. Horregatik, euskal ikusmoldearen asmoa da EAEko nekazaritza-sektorearen berezitasunak kontuan hartuko dituen **estrategia propioa** diseinatzea, eta, horretarako, beste autonomia-erkidego eta estatu kide batzuetako esperientziak eta jardunbide egokiak baloratzea.

Hauek dira EAEko estrategia hori egitea justifikatzen duten arrazoiak:

1. **Sektoreko zahartzea:** 65 urtetik gorako titularren proportzio handiak eta gazteen presentzia urriak ekintza zehatzak eta egokituak eskatzen dituzte.
2. **Nekazaritza uzteko arriskua:** erreleborik ez izateak arriskuan jartzen du ustiatze askoren jarraitutasuna.
3. **Lerrokatze estrategikorako aukera:** hiru lurralde historikoetako ikaskuntzak integratzea.
4. **Nekazaritza-sektoreak landa-jasangarritasunean betetzen duen eginkizuna:** produkzioaz harago, nekazaritza-sektoreak ingurumena, paisaia, kultura eta lurralde-kohesioa mantentzen laguntzen du.

Estrategia horren garapena, gainera, Eusko Jaurlaritzako Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Sailak heldu beharreko funtsezko erronketako bat da, Eusko Jaurlaritzaren legegintzaldi honetarako konpromiso eta ekimenetan txertatua; zehazki, gobernu-programaren 94. konpromisoaren 1. ekimenean kokatzen da. Era berean, erronka hori garrantzitsuenen artean aintzat hartzen da hiru foru-aldundien ekintza politikoan, haren kudeaketaz arduratzen diren departamentuen/sailen barruan.

Nolanahi ere, bertan esplizitatutako edukitik eta lerroetatik abiatuta ere, estrategia horren hedapena prozesu ireki gisa egituratzen da, arau- edo finantza-aldaketak edo hura hobetzen lagunduko duten jardura berriak txertatzeko aukerari loturik. Estrategia 2025-2028 aldian (legegintzaren iraupena) garatzeko konfiguratzen da, eta 25 milioi eurotik gorako aurrekontu-zuzkidura du lau urteetarako. Hala ere, abian jartzen diren jarduketak eta horien finantzaketa 10 urtez irauteko asmoarekin sortzen dira.

Azken batean, estrategia horrek, belaunaldien arteko erreleboaren berehalako desfioei erantzuteaz gain, nekazaritza-sektore dinamikoa, berritzailea, inklusiboa eta erresilientea finkatzera bideratzen da, Euskadiko landa-garapenearen eta lurralde-kohesioaren eragile gisa betetzen duen eginkizuna bermatze aldera.

2. GOBERNANTZA

Euskadiko Belaunaldien arteko Erreleborako Estrategia Eusko Jaurlaritzako Elikadurako eta Landa Garapeneko Sailburuordetzak gidatu eta koordinatuko du, eta HAZI Fundazioaren esku egongo da idazkaritza teknika. Ikusmolde egituratu horren asmoa da EAEko nekazaritza-sektorearen jasangarritasuna bermatzea eta, horretarako, belaunaldien arteko erreleboa sustatzea.

Gobernantza-eredua Eusko Jaurlaritzaren eta foru-aldundien artean partekatua izango da, entitate bakoitzaren eskumen espezifikoak kontuan hartuta. Elkarlaneko ikusmolde horrek ahalbidetuko du behar diren ekintzen kudeaketa eraginkor eta orekatua.

Estrategia ikuspegi **integrale**tik konfiguratzen da eta esku hartzeko funtsezko zortzi arloren inguruan antolatzen da:

1. **Esparru arauemailea:** indarrean dagoen legeria berrikustea eta egokitzea.
2. **EAEko nekazaritza-sektorea baliaraztea:** sektorearen errekonozimendu soziala, ingurumen-arlokoa eta ekonomikoa areagotzea.
3. **Gazteak sektorera hurbiltzea:** haien interesa eta hurbiltze aktiboa sustatzea.
4. **Erreleboaren beharra duten nekazaritza-ustiategiak irispidean izatea:** erreleborik gabeko ustiategi bideragarrien trantsizioa erraztea.
5. **Gazteen instalazio-prozesua:** nekazari berrientzako hasierako faseak sinplifikatzea eta egituratzea.
6. **Instalatutako gazteek finantzaketa irispidean izatea:** instalatzen diren gazteentzako finantza-baliabide egokiak bermatzea.
7. **Prestakuntza eta aholkularitza:** gaitasun teknikoak eta enpresa-gaitasunak hobetzea.
8. **Bizi-kalitatea:** landa-inguruneke pertsonen ongizatea eta jasangarritasuna sustatzea.

Estrategiaren ikusmolde integral hori, gainera, Europar Batasunak babestutako beste estrategia batzuekin lerrotatzen da, adibidez NPE sareko “Z belaunaldia: nekazaritzan belaunaldien arteko erreleboa gidatzen” talde tematikoarekin. Izan ere, estrategia horrek ere jarduketak planteatzen ditu Euskadin planteatutako oso antzekoak diren 7 lan-arlotan. (https://eu-cap-network.ec.europa.eu/news/let-gen-z-lead-generational-renewal-agriculture_en)

Eusko Jaurlaritzaren erantzukizunak:

- Euskadiko Belaunaldien arteko Erreleborako Estrategia esparru-dokumentu partekatu gisa egitea.
- Sendotu finantza-tresna garatzea eta babestea, gazteei instalatzen laguntzeko.
- Nekazaritza-sektorea sentsibilizatzeko eta baliarazteko kanpainak diseinatzea eta egikaritzea.
- Nekazaritza-probako espazioak koordinatzea (test-espazioak).
- Belaunaldien arteko erreleboa bultzatzeko ustiategien transmisioan laguntzea.

Foru-aldundien erantzukizunak:

- Belaunaldien arteko erreleborik gabeko ustategi bideragarriak diagnostikatzea eta zehaztea.
- Sarrerako eta irteerako ustategiak konektatzeko bitartekotzako bulegoak eta datu-baseak inplementatzea.
- Nekazaritza-lurzorua irispidean izateko tresnak kudeatzea.
- GAZTENEK instalazio-programa eta sartzeko laguntzak eta inbertsioak kudeatzea.
- Sektorean sartzen diren gazteen aldeko neurri fiskalak analizatzea eta aplikatzea.
- Landa-inguruneko bizi-kalitatea hobetzen laguntzea.

Eusko Jaurlaritzaren eta foru-aldundien artean partekatutako ekintzak:

- Estrategiaren helburuak definitzea.
- GAZTENEK prozesuaren berrikuspen integrala, barnean direla enpresa-planak, monitorizazioa, genero-berdintasuna eta funtsezko beste alderdi batzuk.
- Nekazaritzako prestakuntza-eredua berrikustea eta hobetzea.
- Aholkularitza-zerbitzuak belaunaldien arteko erreleboaren beharrekin bat etorraraztea.
- Gazteei nekazaritza-sektorerara hurbiltzen laguntzeko bekak sustatzea.
- Arauak eguneratzea.

HAZI Fundazioa:

- Euskadiko erreleboaren egoerari buruzko diagnostikoa egitea.
- Sektoreak balio ekosistemikoei egiten dien ekarpena ebaluatzea.
- Dibulgazio-kanpainetan laguntzea.
- Hurbiltze-bekak eta Nekazaritzako Erasmus kudeatzea.
- Agritech alorreko koordinazioa eta prestakuntza, berrikuntza eta digitalizazioa.

Euskadiko Belaunaldien arteko Erreleborako Estrategia gobernantza partekatuan eta instituzioen arteko lankidetzan oinarritzen da. Antolaketa-esparru horrek belaunaldien arteko erreleboaren desfioetarako erantzun integrala ziurtatzen du, belaunaldi berrientzako nekazaritza-sektore dinamikoa, berritzailea, erakargarria eta jasangarria sustatze aldera.

3. DIAGNOSTIKOA

3.1. NEKAZARITZA-ZENTSUA

3.1.1. Sarrera

Nekazaritza-zentsua 1989. urteaz geroztik egiten da, Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza-ustiategien egitura-ezaugarri nagusiak eta denboran izan duten bilakaera ezagutzeko helburu nagusiarekin.

Zentsuak gaur egun dauden (kasu honetan 2020ko irailaren 30ean) nekazaritza- eta abeltzaintza-ustiategi guztiak hartzen ditu, edozein izanik ere titular gisa jarduten duen pertsona fisikoa edo juridikoa eta nekazaritza-produkzioari ematen zaion xedea, baldin eta irizpide hauetakoren bat betetzen badute:

- Gutxienez 1 ha nekazaritzako azalera erabili (NAE) duten ustiategi guztiak.
- Landu daitekeen gutxienez 1 ha lur duten ustiategi guztiak.
- Patatak lantzeko gutxienez 0,5 ha NAE duten ustiategi guztiak.
- Barazki freskoak eta marrubiak lantzeko gutxienez 0,2 ha NAE duten ustiategi guztiak.
- Landare aromatikoak, sendabelarrak eta sukaldaritzako landareak, lore eta landare apaingarriak, haziak eta plantulak lantzeko eta mintegiak egiteko gutxienez 0,2 ha NAE duten ustiategi guztiak. (Aire zabaleko laboreak bakarrik hartzen ditu; adibidez, beirapean landutako sendabelarren kasuan, erabili beharreko atalasea berotegiena da).
- Fruta-arbolak, baiak, intxaurrondoak, zitrikoak eta beste labore iraunkor batzuk (mintegiak, mahastiak eta olibondoak izan ezik) hartzen dituen gutxienez 0,3 ha NAE duten ustiategi guztiak.
- Gutxienez mahastien 0,1 ha NAE duten ustiategi guztiak.
- Gutxienez olibondoen 0,3 ha NAE duten ustiategi guztiak.
- Gutxienez 100 m² berotegi dituzten ustiategi guztiak.
- Gutxienez 100 m² perretxiko landu dituzten ustiategi guztiak.
- Gutxienez azienda-unitate bat (AzLU) duten (zaldiak izan ezik) ustiategi guztiak.
- Gutxienez 1,7 zaldi-unitate duten ustiategi guztiak.
- Gutxienez 10 erlauntz dituzten ustiategi guztiak.

Irizpide horiek independenteak dira, hau da, gutxienez horietako bat bete behar da ustiategia azterketaren xede den populaziotzat jotzeko.

Ustiategi nabarmenki basogintzakoak zentsutik kanpo geratzen dira arestian aipatutako baldintzak betetzen ez badituzte, zentsua berez nekazaritza eta abeltzaintzakoak diren ustiategiei dagokie-eta.

3.1.2. Ustiategi kopuruaren bilakaera

Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza-ustiategiaren kopurua, eskualdeen eta lurralde historikoen arabera.

ESKUALDEA / LURRALDE HISTORIKOA	1989	1999	2009	2020
Añana	679	673	373	359
Arabako Errioxa / Rioja Alavesa	1.676	1.588	1.231	1.318
Arabako Kantaurialdea / Cantábrica Alavesa	1.093	1.048	714	522
Arabako Lautada / Llanada Alavesa	1.344	1.006	773	638
Arabako Mendialdea / Montaña Alavesa	543	411	273	242
Gorbeialdea / Estribaciones del Gorbea	636	555	327	273
Araba	5.971	5.281	3.691	3.352
Bidaso beherea / Bajo Bidasoa	408	387	250	168
Debabarrena / Bajo Deba	706	707	543	463
Debagoiena / Alto Deba	1.176	1.256	823	662
Donostialdea	1.559	1.543	1.098	922
Goierrri	1.611	1.465	979	799
Tolosaldea	1.559	1.438	1.024	888
Urola Kosta	1.578	1.453	1.082	1.014
Gipuzkoa	8.597	8.249	5.799	4.916
Arratia-Nerbioi / Arratia-Nervión	1.585	1.429	836	631
Bilbo Handia / Gran Bilbao	2.567	1.970	1.256	789
Durangaldea / Duranguesado	1.807	1.685	1.156	753
Enkartzazioak / Encartaciones	1.844	1.579	1.025	815
Gernika-Bermeo	1.826	1.753	1.047	551
Markina-Ondarroa	1.013	967	696	495
Plentzia-Mungia	2.174	1.790	1.048	617
Bizkaia	12.816	11.173	7.064	4.651
EUSKADI	27.384	24.703	16.554	12.919

Jakina denez, zentsu arteko ustiategi kopuruaren bilakaerak (1989-1999-2009-2020) erakusten du ustiategiak uzkuartzen ari direla sektorea profesionalizatzearen alde. Ustiategi bakoitzaren lurralde-oinarria handitu egin da, eta, gainera, ustiategi horien produkzio estandarrak gora egin du. 2020an 12.919 ustiategi daude nekazaritza-zentsuaren atalasearen pean erroldatuta. Hori izango da aztertuko den unibertsoa.

3.1.3. Premisak

Kontuan hartu behar da azken nekazaritza-zentsua 2020ko irailaren 30eko erreferentziarekin egin zela eta erretiroa hartzeko gutxieneko adina gero eta handiagoa dela. **Txostenerako, erretiroa hartzeko 65 urteko adina hartuko dugu erreferentziatzat.**

Erretiroa hartzeko 65 urteko gutxieneko adinaren erreferentziaren arabera, kontuan hartu behar ditugu **2020ko nekazaritza-zentsuaren datan 56 urte edo gehiago dituzten ustiategiaren titularrak, hau da, erretiro-egoeran daudenak edo hurrengo 5 urteetan erretiroa hartuko dutenak.** Data horretatik gorako ustiategi-buru guztiek izan dezakete edo behar izan dezakete erreleboa.

Kontuan izan behar dugu 61 urte zituzten titularrak (erreferentzia gisa), pentsatzekoa denez, erretiro-adinean egongo direla, baina azken 4 urte horietan jarduerarekin jarraitu ahal izan dutela (produkzio estandarra murriztuz, orientazio ekonomikoa aldatuz, eta abar), edo ustiategia saldu, laga edo itxi ahal izan dutela.

Azterketa honetan kontuan hartu den hurrengo aldagaia **dimentsio ekonomikoa** izan da. Eskualde jakin baten nekazaritza-ezaugarri bakoitzerako batez besteko egoerari dagokion produkzioaren balioa hartzen da dimentsio ekonomikotzat. Ustiategi baten dimentsio ekonomikora eramateko, **produkzio estandarra** hartu da erreferentziazat. Produkzio estandarra ustiategi bateko produktu nagusiaren edo nagusien balioaren eta produktu sekundarioaren edo sekundarioen balioaren batura da. Hots, ez da nahasi behar saltzeko modukoa izan litekeen produkzioarekin; izan ere, **ustiategiaren potentzial produktiboaren balorazio teorikoa da**. Hurrengo taularen arabera, ustiategiak 5 multzotan sailkatzen ditugu analizatzeko.

EDU	MULTZOA
>2.000	1. MULTZOA
2.000-3.999	
4.000-7.999	2. MULTZOA
8.000-14.999	
15.000-24.999	3. MULTZOA
25.000-49.999	4. MULTZOA
50.000-99.999	5. MULTZOA
100.000-499.999	6. MULTZOA
>500.000	

Lehenengo multzoan 4.000 eurorainoko produkzio estandarra duten ustiategiak daude, irabazi-asmorik gabeko aisialdiko ustiategiak. Bigarren multzoan 15.000 eurorainoko dimentsioa duten ustiategiak daude; ustiategi horietan nolabaiteko zuzeneko salmenta edo mozkina egon daiteke, baina gehien-gehienak autokontsumora eta hartzen dituen ingurune naturala mantentzera bideratuta dauden ustiategiak dira.

Hirugarren multzoan irabazizko beste jarduera batzuen osagarri den jardueraz hitz egin daiteke oraindik ere, 15.000 eurotik 25.000 euroraino doan tartean. Ustiategi horiek xede dualarekin garatzen dute nekazaritza-jarduera: ohiturak, kultura eta sustraitzea mantentzea, errendimendu ekonomikoa lortzen duten aldi berean. Efizientziarik gabeko ustiategiak dira ikuspuntu ekonomikotik, baina kanpo-eragin positiboa dute, jarduera baserritik kanpoko lan batekin batera garatzen dute-eta.

Laugarren taldetik aurrera hasiko lirateke profesionaltzat jo genitzakeen ustiategiak (Estrategiaren ondorioetarako bideragarritasunaren kontzeptua). Ustiategi horietan output estandarra **50.000 euroraino** igotzen da. Bosgarren taldean 100.000 eurorainoko produkzio estandarra duten ustiategiak daude, bi edo hiru pertsona ere arduraldi eskusiboan izan ditzaketenak. Eta, azkenik, 100.000 eurotik gorako produkzio estandarreko 6. multzoan, ustiategi handiak edo oso handiak egongo lirateke.

3.1.4. Nekazaritza-ustategien ezaugarri nagusiak


Ustiategi gehien-gehienak pertsona fisikoen ustiategiak dira; % 10 baino gutxiago dira nortasun juridikoa dutenak.

Ustiategi mota	Kopurua
Nortasun juridikorik gabeko entitatea	161
Pertsona fisikoa	11.334
Pertsona juridikoa	1.047
Zenbait pertsona fisiko bazkide	377
Euskadi	12.919

Ustiategi-buruen % 25 emakumeak dira. Proportzio hori mantendu egiten da ustiategi profesionalen kasuan.

Ustiategi-burua	Gizona	Emakumea	Guztira
Araba	2.624	728	3.352
Gipuzkoa	3.642	1.274	4.916
Bizkaia	3.340	1.311	4.651
Euskadi	9.606	3.313	12.919

Oro har, **titularra** da “ustiategi-buruaren” figura egikaritzen duena.



Batez besteko adinari dagokionez, azken nekazaritza-zentsuan **ustategien titularraren batez besteko adina 58 urte baino handixeagoa zen.** Dena den, **profesionaltzat** jotzen diren ustiategiak kontuan harturik, **batez besteko adina 54 urte arte jaisten da.**

Hori gertatzen da ustiategi ez-profesionalen jendeak nekazaritza-jarduerarekin jarraitzen duelako hobby gisa edo baserria mantentze hutsagatik.

ESKUALDEA / LURRALDE HISTORIKOA	Ustiategi guztiak	Ustiategi profesionalak
Araba	55,6	53,3
Añana	55,8	54,8
Arabako Errioxa / Rioja Alavesa	54,1	52,1
Arabako Kantaurialdea / Cantábrica Alavesa	57,4	53,9
Arabako Lautada / Llanada Alavesa	56,9	55,5
Arabako Mendialdea / Montaña Alavesa	55,6	52,4
Gorbeialdea / Estribaciones del Gorbea	56,0	52,1
Gipuzkoa	60,1	55,2
Bidaso behekoa / Bajo Bidasoa	58,2	53,1
Debabarrena / Bajo Deba	61,3	56,0
Debagoiena / Alto Deba	63,6	57,3
Donostialdea	59,1	54,0
Goierri	60,2	54,8
Tolosaldea	59,5	54,8
Urola Kosta	59,1	55,9
Bizkaia	58,7	53,7
Arratia-Nerbioi / Arratia-Nervión	58,3	53,7
Bilbo Handia / Gran Bilbao	57,3	53,9
Durungaldea / Duranguesado	59,8	55,7
Enkartzioak / Encartaciones	55,5	52,1
Gernika-Bermeo	61,4	55,4
Markina-Ondarroa	60,4	53,1
Plentzia-Mungia	60,4	53,7
EUSKADI	58,4	54,0

Ustiategi profesionalak kontuan harturik eta orientazio tekniko-ekonomikoaren arabera batez besteko adina analizatuta, **fruta-ustiategiak, labore estentsiboenak, labore anitzekoak, mistoak eta baratze-ustiategiak dira orientazio zahartuenak.**

Aitzitik, orientazio nagusiki abeltzaintzakoak dira **batez besteko adin txikiena dutenak: hegaztiak, alejaleak, txerriak, mahastizaintza, behiak**, hurrenez hurren.

Ustiategi profesionalen batez besteko adina OTEaren arabera	Urteak
15.- Zereal-ustiategiak eta labore oleaginosoak eta proteaginosoak	56,5
16.- Labore-lur handiak dituzten ustiategiak	52,3
21.- Berotegian espezializatutako baratze-ustiategiak	53,4
22.- Aire zabaleko baratzezaintza espezializatutako ustiategiak	56,0
23.- Bestelako baratzezaintza	52,3
35.- Mahastizaintza espezializatutako ustiategiak	52,2
36.- Fruta-ustiategiak eta zitriko-ustiategi espezializatuak	56,9
38.- Labore iraunkorren zenbait konbinazio dituzten ustiategiak	58,5
45.- Behi-ustiategi espezializatuak: esnetarako orientazioa	52,5
46.- Behi-ustiategi espezializatuak: hazkuntza eta haragitarako orientazioa	52,3
47.- Behi-ustiategiak: esne, hazkuntza eta haragitarako orientazio konbinatua	55,2
48.- Ardiak, ahuntzak eta beste herbiboro batzuk dituzten ustiategiak	54,9
51.- Txerri-ustiategi espezializatuak	51,2
52.- Hegazti-ustiategi espezializatuak	50,5
53.- Alejaleen zenbait konbinazio dituzten ustiategiak	55,6
61.- Labore anitzeko ustiategiak	56,9
73.- Azienda anitzeko ustiategiak, herbiboroen orientazioa dutenak	54,4
74.- Azienda anitzeko ustiategiak, alejaleen orientazioa dutenak	51,6
83.- Labore-lur handiak dituzten ustiategi mistoak: herbiboroak	55,0
84.- Abeltzaintzarako zenbait labore-konbinazio dituzten ustiategi mistoak	56,1
Guztizko orokorra	54,0

Nekazaritza-zentsuak informazioa biltzeko egiten dituen galderen artean, **belaunaldien arteko erreleboarekin zuzenean erlazionatuta** dauden **hiru galdera** egiten ditu, 4.7 puntuaren kokatzen direnak. Honako hauek dira:

4.7.- USTIATEGIAREN BILAKAERA-PLANA ETA BELAUNALDIEN ARTEKO ERRELEBOA

4.7.1 Datozen 5 urteetan, ustiategiarekin jarraitzeko asmoa al duzu? 936 1 ☐ BAI 6 ☐ EZ
 4.7.2 Zein da zure bilakaera-plana 5 urte horietan? 937 1 ☐ Berdin jarraitzea 2 ☐ HAZTEA 3 ☐ JAISTEA
 4.7.3 Ba al dago ustiatagirako ondorengorik? 938 1 ☐ BAI 6 ☐ EZ

3.1.5. Xede-ustiategiak lurralde historikoaren eta eskualdearen arabera

Belaunaldien arteko erreleboari buruzko interesari begira, 4., 5. eta 6. multzoak hartuko ditugu kontuan. **Beraz, gutxienez aipatutako baldintza betetzen duten 3.364 ustiategi ditugu: 1.834 Araban, 830 Gipuzkoan eta 700 Bizkaian.**

Belaunaldien arteko erreleboari eta nekazaritza-zentsua egin zen datari (2020) dagokienez, azterketa honetan ustiategiak hiru kategoriatan banatuko dira:

- Jarduneko titularrak: nekazaritza-zentsua egin zen datan 56 urte baino gutxiago zituzten titularrak.
- Hurrengo 5 urteetan erretiroa hartuko duten titularrak: 56 eta 61 urte bitarteko titularrak.
- Erretirodunak: 2020an 61 urte baino gehiago zituzten guztiak.

ESKUALDEA / LURRALDE HISTORIKOA	Jardunean	Erretirotik hurbil	Erretiroduna	Guztira
Araba	1.020	377	437	1.834
Añana	116	48	58	222
Arabako Errioxa / Rioja Alavesa	523	169	180	872
Arabako Kantaurialdea / Cantábrica Alavesa	65	26	30	121
Arabako Lautada / Llanada Alavesa	178	85	124	387
Arabako Mendialdea / Montaña Alavesa	79	30	25	134
Gorbeialdea / Estribaciones del Gorbea	59	19	20	98
Gipuzkoa	452	141	237	830
Bidaso behekoa / Bajo Bidasoa	15	4	8	27
Debabarrena / Bajo Deba	31	4	24	59
Debagoiena / Alto Deba	32	13	21	66
Donostialdea	104	27	32	163
Goierri	67	23	36	126
Tolosaldea	86	26	41	153
Urola Kosta	117	44	75	236
Bizkaia	410	116	174	700
Arratia-Nerbioi / Arratia-Nervión	55	15	25	95
Bilbo Handia / Gran Bilbao	68	15	33	116
Durantaldea / Duranguesado	44	16	19	79
Enkartzioak / Encartaciones	116	33	41	190
Gernika-Bermeo	34	17	20	71
Markina-Ondarroa	30	2	7	39
Plentzia-Mungia	63	18	29	110
EUSKADI	1.882	634	848	3.364

Ustiategi horien guztien ia % 75 adin aktiboan egongo lirateke, 1.882 erretiroa hartzeko 5 urtetik gorako tartearekin (hots, titularrek 56 urte baino gutxiago zituzten nekazaritza-zentsua egin zenean) eta 634 hurrengo 5 urteak bete baino lehen erretiroa hartzeak. Bestalde, erretiro-adinean egongo liratekeen 848 ustiategi geratuko lirateke, nahiz eta azken 4 urte horietan jarduerarekin jarraitu ahal izan duten (produktzio estandarra murriztuz, orientazio ekonomikoa aldatuz, eta abar), edo ustiatagia saldu, laga edo itxi ahal izan duten.

“Erretirotik hurbil” eta “erretiroduna” atalen barruan —horiexek dira lehentasunezko neurriak eta premiazkoenak behar dituzten atalak— 1.482 ustiatagi izango genituzke.

Ba al dago ondorengorik ustiategian?	Ed/Ee	EZ	BAI	Guztira
Araba	70	348	396	814
Añana	2	58	46	106
Arabako Errioxa / Rioja Alavesa	58	91	200	349
Arabako Kantaurialdea / Cantábrica Alavesa	3	33	20	56
Arabako Lautada / Llanada Alavesa	4	116	89	209
Arabako Mendialdea / Montaña Alavesa	3	33	19	55
Gorbeialdea / Estribaciones del Gorbea		17	22	39
Gipuzkoa	6	200	172	378
Bidaso behekoa / Bajo Bidasoa		7	5	12
Debabarrena / Bajo Deba		18	10	28
Debagoiena / Alto Deba	2	19	13	34
Donostialdea		30	29	59
Goierrri	2	32	25	59
Tolosaldea		34	33	67
Urola Kosta	2	60	57	119
Bizkaia	7	157	126	290
Arratia-Nerbioi / Arratia-Nervión		22	18	40
Bilbo Handia / Gran Bilbao	2	26	20	48
Durangaldea / Duranguesado	1	20	14	35
Enkartzioak / Encartaciones		34	40	74
Gernika-Bermeo	1	22	14	37
Markina-Ondarroa		6	3	9
Plentzia-Mungia	3	27	17	47
EUSKADI	83	705	694	1.482

“Kolektibo” zaurgarriago horren barruan, ia erdiek esan dute ustiatagirako ondorengotza badutela, eta beste erdiek “EZ” erantzun dute.

3.1.6. Xede-ustiategiak orientazio tekniko-ekonomikoaren arabera

Erretiroa hartu duten edo erretirotik hurbil dauden eta profesionalak diren ustiatagien datuak orientazio tekniko-ekonomikoaren arabera (aurrerantzean, OTE) analizatuta, lehenik digitu bateko OTEaren arabera, honako hauek dira emaitzak:

Ustiategi profesionaletako batez besteko adina OTEaren arabera	Erretirotik hurbit	Erretiroduna	Guztira
1.- Labore-lur handietan espezializatutako ustiategiak	129	164	293
2.- Baratze-ustiategi espezializatuak	66	101	167
3.- Labore iraunkorretan espezializatutako ustiategiak	184	227	411
4.- Herbiboro-ustiategi espezializatuak	202	256	458
5.- Alejaleen produkzioan espezializatutako ustiategiak	26	30	56
6.- Labore anitzeko ustiategiak	6	17	23
7.- Azienda anitzeko ustiategiak		6	6
8.- Labore eta abeltzaintzako ustiategi mistoak	21	47	68
Guztizko orokorra	634	848	1.482

Ba al dago ondorengorik ustiategian?	Ed/Ee	EZ	BAI	GUZTIRA
1.- Labore-lur handietan espezializatutako ustiategiak	6	157	130	293
2.- Baratze-ustiategi espezializatuak	6	100	61	167
3.- Labore iraunkorretan espezializatutako ustiategiak	60	106	245	411
4.- Herbiboro-ustiategi espezializatuak	7	255	196	458
5.- Alejaleen produkzioan espezializatutako ustiategiak	4	33	19	56
6.- Labore anitzeko ustiategiak		13	10	23
7.- Azienda anitzeko ustiategiak		1	5	6
8.- Labore eta abeltzaintzako ustiategi mistoak		40	28	68
Guztizko orokorra	83	705	694	1.482

Hemen, eta titularren batez besteko adinari kontrajarrita, bi tauletan ikus dezakegu **herbiboroen ustiategiak (behiak, ardiak eta ahuntzak) direla belaunaldien arteko erreleborik ezarekiko zaurgarrienak, eta erretiroa hartu duten edo hurrengo 5 urteetan hartuko duten ustiategien kopuru handiena dutenak. Orientazio horren atzetik daude labore estentsiboen ustiategiak (1. OTEa) eta baratze-ustiategiak (2. OTEa), eta zahartuenak dira gainera.**

Hurrengo taulan datu horiek berak ikus ditzakegu, ustiategiak hartzen dituen eskualdearen araberrako desagregazio handiagoarekin adierazita:

Ba al dago ondorengorik ustiategian?	Ed/Ee	EZ	BAI	Guztira
Araba	70	348	396	814
1.- Labore-lur handietan espezializatutako ustiategiak	6	156	129	291
2.- Baratze-ustiategi espezializatuak	1	8	6	15
3.- Labore iraunkorretan espezializatutako ustiategiak	57	87	200	344
4.- Herbiboro-ustiategi espezializatuak	5	65	49	119
5.- Alejaleen produkzioan espezializatutako ustiategiak	1	8		9
6.- Labore anitzeko ustiategiak		5	2	7
7.- Azienda anitzeko ustiategiak		1		1
8.- Labore eta abeltzaintzako ustiategi mistoak		18	10	28
Gipuzkoa	6	200	172	378
1.- Labore-lur handietan espezializatutako ustiategiak			1	1
2.- Baratze-ustiategi espezializatuak		38	24	62
3.- Labore iraunkorretan espezializatutako ustiategiak	3	10	32	45
4.- Herbiboro-ustiategi espezializatuak	1	118	84	203
5.- Alejaleen produkzioan espezializatutako ustiategiak	2	15	12	29
6.- Labore anitzeko ustiategiak		5	5	10
7.- Azienda anitzeko ustiategiak			4	4
8.- Labore eta abeltzaintzako ustiategi mistoak		14	10	24
Bizkaia	7	157	126	290
1.- Labore-lur handietan espezializatutako ustiategiak		1		1
2.- Baratze-ustiategi espezializatuak	5	54	31	90
3.- Labore iraunkorretan espezializatutako ustiategiak		9	13	22
4.- Herbiboro-ustiategi espezializatuak	1	72	63	136
5.- Alejaleen produkzioan espezializatutako ustiategiak	1	10	7	18
6.- Labore anitzeko ustiategiak		3	3	6
7.- Azienda anitzeko ustiategiak			1	1
8.- Labore eta abeltzaintzako ustiategi mistoak		8	8	16
EUSKADI	83	705	694	1.482

Arabian 1. OTEa da (labore estentsiboak) orientaziorik zaurgarriena, eta labore iraunkorrak eta herbiboroak dira hurrengoak. Gipuzkoan eta Bizkaian, eraginik handiena jasaten duten azpisektoreen artean, 4. OTEa (herbiboroak) nabarmentzen da guztien gainetik, eta baratze-sektorea da hurrengoa.

Datuak OTE desagregatuago baten arabera (bi digitu) analizatzen baditugu, eta honako premisa hauek kontuan harturik:

- ustiategi profesionalak
- erretiro-adinean daudenak eta hurrengo 5 urteetan erretiroa hartuko dutenak
- belaunaldien arteko erreleborik ez dutenak

Egoera honako hau izango litzateke:

Erreleborik gabe eta erretiro-adinean edo hortik hurbil dauden ustiategi profesionalak	Araba	Gipuzkoa	Bizkaia	Euskadi
15.- Zereal-ustiategiak eta labore oleaginosoak eta proteaginosoak	128			128
16.- Labore-lur handiak dituzten ustiategiak	28		1	29
21.- Berotegian espezializatutako baratze-ustiategiak	2	16	33	51
22.- Aire zabaleko baratzezaintza espezializatutako ustiategiak	3	14	4	21
23.- Bestelako baratzezaintza	3	8	17	28
35.- Mahastizaintza espezializatutako ustiategiak	87	3	3	93
36.- Fruta-ustiategiak eta zitriko-ustiategi espezializatuak		7	6	13
45.- Behi-ustiategi espezializatuak: esnetarako orientazioa	13	34	28	75
46.- Behi-ustiategi espezializatuak: hazkuntza eta haragitarako orientazioa	19	13	13	45
47.- Behi-ustiategiak: esne, hazkuntza eta haragitarako orientazio konbinatua		2	4	6
48.- Ardiak, ahuntzak eta beste herbiboro batzuk dituzten ustiategiak	33	69	27	129
51.- Txerri-ustiategi espezializatuak	5	2		7
52.- Hegazti-ustiategi espezializatuak	2	10	6	18
53.- Alejaleen zenbait konbinazio dituzten ustiategiak	1	3	4	8
61.- Labore anitzeko ustiategiak	5	5	3	13
73.- Azienda anitzeko ustiategiak, herbiboroen orientazioa dutenak	1			1
83.- Labore-lur handiak dituzten ustiategi mistoak: herbiboroak	14			14
84.- Abeltzaintzarako zenbait labore-konbinazio dituzten ustiategi mistoak	4	14	8	26
Guztizko orokorra	348	200	157	705

Euskadin, zaurgarritasunik handiena ardien eta ahuntzen azpisektorearen barruan ikusten da, euskal errealtatea kontuan hartuta, zehazkiago **ardi-ustiategietan, eta labore estentsiboen ustiategiak eta mahastizaintza-ustiategiak dira hurrengoak**. Datu horiek ez dira absolutuak, erlatiboak baizik. Hori dela eta, irakurketak lurralde bakoitzaren errealtatea kontuan hartu behar du.

Arabian labore estentsiboen ustiategiak eta mahastizaintza-ustiategiak dira, belaunaldien arteko erreleboari dagokionez, etorkizunerako ikuspegi korapilatsuagoa dutenak.

Gipuzkoan ardien sektorea da erreleboa aurkitzeko zailtasun handienak dituen.

Bizkaian, Gipuzkoan bezala, kopuru absolutuetan **baratze-sektorea da eraginik handiena duena. Hala ere, haragitarako behien eta ahuntzen azpisektoreak** ia parean daude.

3.1.7. Ustiategi aktiboak

Erretiro-adinean edo hortik hurbil dauden ustiategiez gain, beste ustiategi batzuek erantzun zuten, hainbat inguruabarren ondorioz (ekonomikoak, langileei dagozkienak, fisikoak, pertsonalak eta abar), hurrengo urteetan **ez dutela ustiategiarekin jarraitzeko asmorik**.

Adin aktiboan dauden eta hurrengo 5 urteetan jarduera utziko duten ustiategien kopurua	Ondorengorik gabe	Ondorengoak dituztenak	Guztira
4. MULTZOA	27	2	29
5. MULTZOA	13	5	18
6. MULTZOA	19	10	29
Guztira	59	17	76

Taula horretan ikus daitekeenez, 25.000 eurotik gorako produkzio estandarra duten 76 ustiategik ez dute jarraitzeko asmorik, eta horietako 59 ustiategik ez dute erreleborik.

Hau da, ezarritako irizpideak betetzen zituzten erreleborik gabeko aurreko 705 ustiategiei beste 59 horiek gehitu beharko litzaizkieke, eta, hortaz, 764 ustiategi izango lirateke guztira.

3.2. GAZTENEK PROGRAMA

Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritza-sektorean lehen aldiz ezarri nahi duten gazteei babesa eta laguntza emateko diseinatutako ekimena da **Gaztenek programa**. Programaren helburu nagusia da gazteei pixkanaka sartzeko laguntzea, esparru horretan instalatzeko eta finkatzeko prozesuarekin lotutako arriskuak ahalik eta gehien murrizte aldera.

Programa **2004an** jarri zen abian, **Eusko Jaurlaritzaren** eta **hiru foru-aldundien** lidergoan, eragile sektorialekin eta lurralde-eragileekin lankidetzan. Harrezkero, laguntza integrala eskaini du nekazaritzako ekintzailetzaren etapa guztietan, honako alderdi hauek barne:

1. **Ideen sorkuntza:** proposamen eta proiektuen hasierako garapenean laguntzea.
2. **Enpresen sorrera:** negozioa formalizatzeko eta ezartzeko euskarria.
3. **Proiektuen kontsolidazioa:** geroztiko faseetan lagun egitea, proiektuaren epe luzerako bideragarritasuna eta jasangarritasuna ziurtatzeko.

Gaztenek programaren datuen arabera, 2018. urteaz geroztik 381 pertsona instalatu dira nekazaritza-sektorean; beraz, **urtean 55 pertsona sartu dira**.

Kontuan izan behar da, alabaina, pertsonak 5 urte dituztela instalatzeko/kontsolidatzeko prozesua burutzeko, eta, batez beste, urtean 500 pertsonak parte hartzen dutela programan. Parte-hartzaile horien % 35 prozesuaren lehen faseetan daude, hots, monitorizazio-fasean edo enpresa-planeari lan egiten; % 41 tutoretza-fasean daude, hots, jarduera ekonomikoa abian jartzen; % 11k proiektua kontsolidatzea lortzen du; eta % 12k huts egiten dute, arestian aipatutako fasaren batean uzten baitute proiektua.

PROZESUAREN FASEA	2018	2019	2020	2021	2022	2023	2024	Guztizko orokorra
MONITORIZAZIOA	121	157	162	198	194	188	202	1.222
TUTORETZA	151	204	223	227	231	213	159	1.408
KONTOLIDATUA	45	38	69	52	42	63	72	381
HUTS EGINAK	29	42	70	147	61	30	42	421
GUZTIRA	346	441	524	624	528	494	475	3.432

Programan parte hartu duten pertsonen generoa kontuan harturik, % 30 emakumeak izan dira eta gehienak (% 70) gizonak.

ORIENTAZIO TEKNIKO-EKONOMIKOA	2018	2019	2020	2021	2022	2023	2024	Guztizko orokorra
Erlezaintza			1	1	1	1	2	6
Haragitarako hegazti-hazkuntza			1		2	2	2	7
Erruteko hegazti-hazkuntza		1	3			5	5	14
Esnetarako ahuntz-azienda		1	1	1	1			4
Zaldi-hazkuntza		1	1			2	1	5
Labore estentsiboak	10	4	7	3	1	4	5	34
Untxi-hazkuntza	2		1					3
Haragitarako zaldi-azienda							1	1
Frutagintza	2	2		1		1	6	12
Baratzezaintza	14	5	10	13	17	8	10	77
Bestelakoak	3		3			2	1	9
Haragitarako ardi-azienda						1	2	3
Esnetarako ardi-azienda	1	5	3	3	3	8		23
Txerri-hazkuntza			1		2			3
Nekazaritza-produkzio ekologikoa						1	2	3
Landare apaingarrien produkzioa			1	4			1	6
Haragitarako behi-azienda		7	13	9	5	12	14	60
Esnetarako behi-azienda	2	3	11	7	8	4	11	46
Ardogintza						2	1	3
Mahastizaintza	8	9	12	7	2	5	4	47
Mahastizaintza eta ardogintza	2			2		5	4	13
Baso-mintegia				1				1
Baratze-mintegia	1							1
KONTSOLIDATUAK	45	38	69	52	42	63	72	381

Orientazio tekniko-ekonomikoari dagokionez, eta kontsolidatutako proiektuen arabera, baratzezaintzako eta haragitarako behien inguruko jarduerak dira nekazaritza-sektorean sartu nahi dutenek gehien eskatzen dituztenak. Haien ondotik datoz mahastizaintza-jarduerak, esnetarako behienak eta labore estentsiboenak.

3.3. ONDORIOAK

Laburbilduz, titularrak erretiroa hartuta edo erretirotik hurbil dituzten 1.482 ustiategi bideragarri daude, eta horietako 705ek ez dute belaunaldien arteko erreleborik. Horiei erreleborik gabeko beste 59 ustiategi gehitu behar zaizkie, horien titularrek jarduera uzteko asmoa baitute, nahiz eta erretirotik hurbil ez egon.

Era berean, Gaztenek programaren bidez urtean 55 sarrera kontsolidatzen dira batez beste.

4. HELBURU NAGUSIAK

Egindako diagnostikoaren arabera, Euskadin dauden belaunaldien arteko erreleborako premiak — gutxi gorabehera identifikatutako erreleborik gabeko 750 ustiategi daude, eta beste 700 ustiategik errelebo potentziala badute ere, GAZTENEK programaz balia litezke edo ustiategi berri bat sor lezakete; beraz, **guztira 1.500 ustiategi dira Estrategia honen helburu**— eta estrategiak esku hartzeko funtsezko zortzi arloak kontuan harturik, Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritza Sektorean Belaunaldien arteko Erreleboa egiteko Estrategia Integralerako 2025-2028 aldirako helburuak ezarriko dira atal honetan.

Eraitzen adierazleak (eragina)

1. **Gazteak sartzeko tasa:** urtean nekazaritza-sektorean egiten diren sarrera berrien kopurua. **Jomuga: 125 gazte/urte.** Hurrengo 10 urteetan 1.250 sarrera.
2. **Belaunaldien arteko erreleboa duten ustiategien ehunekoa:** Euskadin gazteak txertatu dituzten nekazaritza-ustiategien proportzioa, belaunaldien arteko erreleboa behar duten ustiategi guztien gainean. **Jomuga: $\geq$ % 85.**
3. **Ustiategien titularren batez besteko adina:** Euskadiko nekazaritza-titularren batez besteko adinaren murrizketa progresiboa. **Jomuga: erreferentziazko datuarekiko murrizketa.**
4. **Gazteek kudeatutako nekazaritzako azalera erabilgarria (NAE):** titular berriek kudeatutako hektarea kopuruaren igoera. **Jomuga: urteko hazkundera.**

Egikaritzearen adierazleak

5. **Belaunaldien arteko erreleborako programetan (GAZTENEK, nekazaritzako test-espazioak, hurbiltze-bekak eta abar) onartutako eskabide kopurua.** **Jomuga: $\geq$ 100/urte.**
6. **Ustiategi berrien kontsolidazioan lortutako arrakasta-tasa** (3-5 urteren ondoren sektorean jarraitzen duten gazteak). **Jomuga: $\geq$ % 90.**
7. **Finantzaketa eta laguntzak irispidean izatea:** instalaziorako finantza-laguntza jasotzen duten gazteen kopurua. **Jomuga: sartutakoen % 90 edo gehiago.**
8. **Erreleboa sustatzeko laguntzaren onuradun lagatzaileen kopurua** (ikus 5.5.3 jarduketa). **Jomuga: 90 lagatzaile/urte.**

Laguntzaren eta jarraipenaren adierazleak

9. **Prestakuntza eta aholkularitza parte hartzea:** sartu aurretik prestakuntza espezifikoa jasotzen duten gazteen kopurua. **Jomuga: sartutakoen % 100.**
10. **Genero-dibertsifikazioa:** nekazaritza-sektorean sartu diren emakumeen ehunekoa. **Jomuga: $\geq$ % 30.**
11. **Aholkularitza- edo laguntza-programetan parte hartzen duten ustiategien kopurua.** **Jomuga: sartutakoen % 75 edo gehiago.**

Adierazle horiek urtero aurkeztuko zaizkio Nekazari Gazteen Estatutuaren (NGE) Jarraipen Batzordeari.

5. LAN-ARLOAK

VI. eranskinean deskribatzen da estrategian aintzat hartzen diren jarduketan laburpena.

5.1. ESPARRU ARAUEMAILEA

5.1.1. Nekazari Gazteen Estatutuaren (NGE) 8/2014 Dekretuaren aldaketa

➤ AINTZAT HARTUTAKO EKINTZAK

- 8/2014 Dekretua (NGE) estrategiaren arabera eguneratzea eta harmonizatzea. **(EJ/FFAA)**
 - *Nekazari Gazteen Estatutuaren Jarraipen Batzordeak Nekazari Gazteen Estatutua onartzen duen 8/2014 Dekretuaren¹ atariko berrikuspena egin du, eta zenbait aldaketa eta eguneratze sartu dizkio. Egiteko geratzen da dekretuaren eguneratze osoa, estrategian aintzat hartzen diren jarduketa gehigarriak txertatzeko, Nekazaritza, Elikadura eta Landa Garapen Politikako Batzordeak estrategia onartzen duenean.*
 - Euskal Autonomia Erkidegoan nekazaritza-lurra kontserbatzeari eta lur horren erabilpena sustatzeari buruzko urriaren 2ko 193/2012 Dekretuaren analisia. **(EJ/FFAA)**
 - *8/2014 Dekretuaren aldaketan jarduketa jakin batzuk biltzea eta dekretua indargabetzea.*
 - 8/2014 Dekretuaren (NGE) aldaketaren ondorio diren mendiei buruzko foru-arauen balizko aldaketa (ikus 5.4.1 jarduketa). **(FFAA)**
 - *Sartzen diren gazteen herri-larreetarako sarbidea arautzea.*
 - Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikako Lege berriaren araudia egokitzea. **(EJ)**
 - *Lege berrian txertatu beharreko Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikako 17/2008 Legearen eta 8/2014 Dekretuaren (NGE) aldaketaren ondorio diren edukiak ezartzea.*
- **HEDATZE-DATAK:** 2025eko bigarren seihilekoa
- **GUZTIZKO AURREKONTUA:** funts-zuzkidurarik gabe.

¹ Ikus I. ERANSKINA.- NEKAZARI GAZTEEN ESTATUTUAREN (NGE) 8/2014 DEKRETUAREN ALDAKETA

5.1.2.Nekazaritza Politika Erkidearen Plan Estrategikoa (NPEPE). NPE (Nekazaritza Politika Erkidea) laguntzak kobratzeko nekazari aktiboaren kontzeptua aldatzea

➤ AINTZAT HARTUTAKO EKINTZAK

- NPEan nekazari aktiboaren kontzeptua aldatzea. **(EJ)**
 - *NPEaren hurrengo erreforman nekazari aktiboaren kontzeptua mugatzeko aukera ahalbidetzen saiatzea (NPE laguntzak jasotzeko eskubidea duena). Horrek lurzorua libratuko luke eta gazteak eta beste aktibo posible batzuk sartzeko baliabide eta eskubide gehiago ahalbidetuko lituzke.*

➤ HEDATZE-DATAK: 2025-2028 aldiko lehen seihilekoa (NPE berria)

➤ GUZTIZKO AURREKONTUA: funts-zuzkidurarik gabe.

5.1.3.Nekazaritzako test-espazioetarako eta erreleboaren sustapenerako laguntza erregulatzeko araua

➤ AINTZAT HARTUTAKO EKINTZAK

- Araua egitea (Laguntzen Dekretua/Agindua). Ikus IV. ERANSKINA.

➤ HEDATZE-DATAK: 2025-2026 aldiko lehen seihilekoa

➤ GUZTIZKO AURREKONTUA: funts-zuzkidura espezifikorik gabe.

5.2. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO NEKAZARITZA-SEKTOREA BALIARAZTEA

5.2.1.EAEko herritarrek nekazaritza-sektoreak gizarteari ematen dizkion balioen inguruan sentsibilizatzeko kanpaina

➤ AINTZAT HARTUTAKO EKINTZAK

- Hedabide guztien euskarria izango duen kanpaina indartsua (irratia, telebista, RTVE País Vasco, ETB, prentsa, eduki-plataformak, sare sozialak eta abar. Eta paraleloan: hitzaldiak, dibulgazio-jardunaldiak eta abar) **(EJ)**
 - *Helburua: EAEko herritarrei zuzendua, sektoreak eta elikadura-kateak gure gizartean betetzen duten eginkizuna modu positiboan baloratzeko: lurzorua eta paisaiaren kudeaketa, gastronomia, karbono-bahitzea, kultura-balioak, landa-ingurunea eta hango biztanleria mantentzea, jasangarritasuna eta egokitzapen teknologikoa eta adimenduna, eta abar.*
 - *Iraupena: 15 egun. Hasiera 2025eko maiatzean.*
 - *Xede-taldea: EAEko gizarte osoa.*

➤ HEDATZE-DATAK: 2025eko maiatza eta 2027ko maiatza.

➤ GUZTIZKO AURREKONTUA: 365.000 euro.

5.2.2.Gazte potentzialak sektorean errentagarritasun onak lortzeko ahalmenaren inguruan sentsibilizatzeko kanpaina (enpresa-ikuspegia, arrakasta-adibideak, potentzialtasuna duten sektoreak eta abar)

➤ AINTZAT HARTUTAKO EKINTZAK

- Hedabide guztien euskarria izango duen kanpaina indartsua (irratia, telebista, RTVE País Vasco, ETB, prentsa eta abar, bideoak dituzten sare sozialetan arreta berezia jarrita. Online bitartekoak: ZUK, BLOGAK eta abar. Kanpokoak. Eta paraleloan: hitzaldiak, dibulgazio-jardunaldiak eta abar) **(EJ)**
 - *Helburua: lehen sektorean potentzialki sar daitezkeen gazteei zuzendua, ekonomikoki oso ongi bizitzeko aukera eman dezakeen sektorea dela baloratuta. Familiaren edo sektorean hastearen bidez sar daiteke. Gainera, beste abantaila batzuk ere baditu: zeu zara zeure nagusia, naturarekiko harremana, zeure esfortzuaren mende zaude, bizimodu libreagoa eta hobe da, gizarteak estimatzen duen produkzio-alderdia da, prestakuntza behar da, hori transmitituko duten nekazari/abeltzain gazteen adibideekin.*
 - *Iraupena: 15 egun. Hasiera 2025eko ekainean.*
 - *Xede-taldea: 14 eta 28 urte bitarteko gazteak / 28 eta 42 urte bitarteko gazteak / landa-familiak*

- **HEDATZE-DATAK:** 2025eko ekaina/uztaila eta 2027ko ekaina/uztaila.
- **GUZTIZKO AURREKONTUA:** 365.000 euro.

5.2.3.EAEko nekazaritza-sektoreak gizarteari ematen dizkion zerbitzu ekosistemikoen eta kanpo-efektuen ebaluazio ekonomikoa.

- **AINTZAT HARTUTAKO EKINTZAK**
 - EAEko nekazaritza-sektoreak ematen dituen zerbitzu ekosistemikoen eta kanpo-efektuen analisia eta ebaluazioa enkargatzea (nekazaritzarik ezaren kostua). **(HAZI)**
 - *Enkargua: HAZI Fundazioa*
- **HEDATZE-DATAK:** enkargua 2025eko lehen sei hilekoan. Txostenaren entrega 2026ko bigarren sei hilekoan.
- **GUZTIZKO AURREKONTUA:** 95.000 euro.

5.3. GAZTEAK SEKTORERA HURBILTZEA

5.3.1. Nekazaritzako test-espazio igarokorrak bultzatzea

➤ AINTZAT HARTUTAKO EKINTZAK

- Ustiatgien titularrentzako laguntza abian jartzea, beren ustiatgia gazteei laga diezaieten eta horiek gero eskuratzeko edo alokatzeko aukera izan dezaten² **(EJ)**
 - Gaztearen kontratazioa ordaintzeko laguntza: 17.000 euro/urte
 - Bi urteko gehieneko epea
 - Laguntzaren kudeaketa. **(EJ-FFAA)**
 - *Eusko Jaurlaritzaren eta foru-aldundien arteko laguntzaren kudeaketa partekatua diseinua.*
 - Araua eta deialdia egitea, estatu-laguntzak emateko salbuespen-erregelamenduaren bidez. **(DEKRETUA/AGINDUA) (EJ)**
 - Espazio iraunkorren analisia (FFAA)
 - Ezabaketa eta espazio igarokorretarako translazio posiblea.
- **HEDATZE-DATAK:** 2026ko lehen seihilekoa.
- **GUTXI GORABEHERAKO GUZTIZKO AURREKONTUA:** 1.500.000 euro

5.3.2. Egonaldi praktikoak + Nekazaritzako Erasmus (gureen antzeko egitura duten ustiatgietako esperientziak beste autonomia-erkidego batzuetan edo atzerrian).

➤ AINTZAT HARTUTAKO EKINTZAK

- Ezagutza eta informazioa trukatzeko programa (NPEPEko 7201 esku-hartzea), gazte ekintzaileei zuzendutako egonaldi praktikoak sustatzeko. **(EJ-HAZI)**
 - *Deialdia idaztea eta argitaratzea.*
 - *Ekintzaileak prestakuntza praktikoan hartzeko interesa duten enpresak identifikatzea, eta beren kualifikazioa murgiltze-prestakuntza praktikoaren bidez egokitzeko interesa duten ekintzaileak identifikatzea.*
 - *Jasotako proposamenak baloratzea.*
 - *Ezarritako eskakizunak betetzen dituzten egonaldi praktikoaren katalogoa.*
 - *Eusko Jaurlaritzari egonaldi praktikoak jakinaraztea.*

² Ikus IV. ERANSKINA. BELAUNALDIEN ARTEKO ERRELEBOA SUSTATZEN LAGUNTZEKO DEKRETUAREN/AGINDUAREN PROPOSAMENA

- *Egonaldi praktikoak kudeatzea.*
 - Nekazaritzako Erasmus: EAEtik kanpoko nekazaritza-ustategietan egonaldiak sustatzeko laguntzen programa (NPEPEko 7201 esku-hartzea). **(EJ-HAZI)**
 - *Deialdia idaztea eta argitaratzea.*
 - *Finantzaketa-gehikuntza posiblea.*
 - Finantzaketa: aurrekontu-zuzkidura enpresaren edo ustategiaren titularrarentzat izango da bi lerroetan.
 - Egonaldi praktikoaren kasuan, gazte ekintzailearen prestakuntza praktikoaren kostua eta haren kontratazio-kostuak ordainduko dira. Zenbatekoa ustategiko 7.000 eurokoa izango da eta bi ordainketa formalizatuko dira: bata (% 60) egonaldi praktikoaren hasieran, lan-kontratuarekin justifikatu ondoren, eta gainerako % 40a egiaztagiriak aurkeztu eta gero.
- **HEDATZE-DATAK:** 2025eko lehen seihilekoa.
- **GUZTIZKO AURREKONTUA:** 800.000 euro.

5.3.3. Gazteen hurbilketa bultzatzeko beste modu batzuk³

- **AINZAT HARTUTAKO EKINTZAK**
- Gaur egungo ordezkatzeko-zerbitzuen analisia. **(FFAA)**
 - *Hobekuntza- eta efizientzia-esparruak ezartzea.*
 - *Gazteak sektorerara hurbiltzeko bidea ahalbidetzea.*
 - Ustategiak langilez hornitzen dituzten enpresak garatzea eta ezartzea. **(EJ)**
 - *Lehendik dauden enpresen hazkunde-aukera.*
 - *Gazteak sektorean sartzeko ate gisa analizatzea.*
 - Sektorerara hurbiltzeko programa espezifikoak, adibidez Baserritar Misto Profesionala ([Baserritar Misto Profesionala - Landa Eremua - Gipuzkoako Foru Aldundia](#)). **(GFA)**
- **HEDATZE-DATAK:** 2026ko lehen seihilekoa
- **GUZTIZKO AURREKONTUA:** funts-zuzkidura espezifikorik gabe.

³ OHARRA: Aurreko 5.3.3 y 5.3.4 puntuak batu egin dira

5.3.4.EAEko nekazaritza-sektorean sartzen laguntzeko gida

- **AINZAT HARTUTAKO EKINTZAK**
 - Sektor­ean sartu nahi duten gazte potentzial­ei sektor­ean sartzeko bideak errazteko gida osatua egitea (hurbiltzea, laguntzak, prestakuntza, finantzaketa, ustiat­egietarako sarbidea, laguntza fiskalak eta abar) **(HAZI)**
 - *HAZI Fundazioarentzako enkargua.*
- **HEDATZE-DATAK:** 2025eko bigarren sei­hilekoa.
- **GUZTIZKO AURREKONTUA:** 15.000 euro (gida + notario-bulegoetarako liburuxka)

5.4. ERRELEBOAREN BEHARRA DUTEN NEKAZARITZA-USTIATEGIAK IRISPIDEAN IZATEA

5.4.1. Ustiatzearen bitartekotzeko bulegoak sortzea

➤ AINTZAT HARTUTAKO EKINTZAK

- Foru-aldundi bakoitzean bitartekotzeko bulego bat ezartzea (arduradun eta guzti), belaunaldien arteko erreleborik gabeko helburu-ustiatzeak (diagnostikoa) eta sektorean sartzeko interesa duten gazteek bat egin dezaten. **(FFAA)**
 - *Foru-aldundien ustiatzearen erregistroak araztea, erreleborik gabeko ustiatze bideragarriak identifikatzeko (helburu-ustiatzeak).*
 - *Bitartekotzeko bulegoa (fisikoa edo birtuala) sortzea eta arduraduna esleitzea.*
 - *Euskarri juridikoa: “interes-adierazpenaren komunikazioa”⁴, ustiatzearen interesdunen datuen tratamendurako elementu gisa.*
 - *Belaunaldien arteko erreleboa sustatzeko laguntzaren (ikus 5.5.2) eta nekazaritzako test-espazio igarokorrak bultzatzeko laguntzaren (ikus 5.3.1) kudeaketa.*
 - *Enpresa-plan gazteak baloratzeko batzordeak eta Gazteen monitorizazioa.*
 - Gazteentzako nekazaritza-lurzorua biltzeko bitartekotza. **(EJ-FFAA)**
 - *Nekazaritza-lurzoruen bankuak bitartekotzeko bulegoekin konektatzea. Euskadin dauden lur-bankuak analizatzea eta hobetzea/bultzatzea. Lurzoru publiko eta pribatuaren ekintza proaktiboa. 1., 2. eta 3. dimentsio ekonomikoko taldeetako erreleborik gabeko ustiatzearen lurzorua hartzea. (Ikus diagnostikoa).*
 - *Errentamenduen sistematika eta horren sinplifikazioa analizatzea.*
 - *Gazteen herri-larreetarako lehentasunezko sarbidea. Udalekin koordinatzea eta mendi buruzko foru-arauak analizatzea.*
 - *Euskadiko Notarioen Elkargoarekiko akordioa, lurralde historikoetan bitartekotzeko bulegoen jardueren liburuxka informatibo bat banatzeko **(HAZI)**, erabiltzeko asmorik gabeko landa-finken dohaintzak edo herentziak errazago bideratzeko. Liburuxka hori Euskadiko notario-bulegoetan egongo da eskuragarri.*
- **HEDATZE-DATAK:** 2025eko bigarren seihilekoa.
- **GUZTIZKO AURREKONTUA:** funts-zuzkidura espezifikorik gabe⁵.

⁴ Ikus II. eranskina.- Interes-adierazpenaren deialdiaren jarraibideak

5.5. INSTALAZIO GAZTEA

5.5.1. GAZTENEK prozedura berrikustea eta hobetzea⁶

➤ AINTZAT HARTUTAKO EKINTZAK

- GAZTENEK prozedura berrikustea. **(EJ-FFAA-HAZI)**
 - *Enpresa-planak egiteko sistematika: monitoreen eginkizuna eta kontrol instituzionala, exiji daitekeen errentagarritasuna (marjina garbia: 20.000 euro). Aholkularitza-zentroentzako exigentziak (prestakuntza, gutxieneko bisitak eta abar)*
 - *Gazteei exiji dakiekeen prestakuntza-maila: 100 ordu prestakuntza nagusirako, 50 ordu proiektuaren OTEari lotutako prestakuntza espezifikoa eta 50 ordu borondatezko gaien prestakuntza; prestakuntza homologagarriaren analisia.*
 - *Sartzeko exiji daitezkeen baldintzak eta ustiategiaren aurreko titulartasun-aldia berrikustea.*
 - *Prozesu bakoitzeko gazteen arteko networkinga ziurtatzea.*
 - *GAZTENEK prozeduraren tenporizazioa analizatzea (balorazio-batzordeak, enpresa-plan jakin batzuei instalazio-epea luzatzeko aukera).*
 - *41 urtetik gorako pertsonen sarrera analizatzea.*
 - *NPEPEko 6961.1 esku-hartzea aldatzeko proposamena lantzea.*
- Finantzaketa berrikustea. **(FFAA-HAZI)**
 - *Instalatzeko laguntzen analisi konparatiboa lurralde historikoaren arabera.*
 - *Gehieneko laguntza homogeneousatzeko aukera. (Foru-arauak berrikustea)*
 - *Gazteak sartzeko laguntza Europa-mailan berrikustea: NPEPEa berrikustea.*

➤ **HEDATZE-DATAK:** 2025eko bigarren seihilekoa.

➤ **GUZTIZKO AURREKONTUA:** 4.570.000 euro

5.5.2. BELAUNALDIEN ARTEKO ERRELEBOA sustatzeko laguntza: ustiategiaren kudeaketa kontratu bidez instalatzen diren gazteei lagatzen dieten ustiategiaren titularrentzako laguntza.

➤ AINTZAT HARTUTAKO EKINTZAK

- Laguntza berriaren diseinua. **(EJ)**⁷
 - *Beren ustiategiaren zatiaren titulartasuna ustiategiaren bitartekotzako bulegoen bitartez gazteei jabetzan edo errentan eskualdatzea sustatzen duten lagatzaileentzako laguntza prestatzea.*
 - *Laguntza horrek osatu egingo du lagatzaileak ustiategia eskualdatzeagatik jasoko duen zenbatekoaren balioa.*

⁶ Ikus III. ERANSKINA.- NPEPE-KO 6961.1 ESKU-HARTZEA

⁷ Ikus IV. ERANSKINA.- BELAUNALDIEN ARTEKO ERRELEBOA SUSTATZEN LAGUNTZEKO DEKRETUAREN/AGINDUAREN PROPOSAMENA

- Laguntzaren kudeaketa. **(EJ-FFAA)**
 - *Eusko Jaurlaritzaren eta foru-aldundien arteko laguntzaren kudeaketa partekatua*ren diseinua.
 - Araua eta deialdia egitea, estatu-laguntzak emateko salbuespen-erregelamenduaren bidez. **(DEKRETUA/AGINDUA) (EJ)**
- **HEDATZE-DATAK:** 2026ko lehen seihilekoa.
- **GUZTIZKO AURREKONTUA:** 3.000.000 euro.

5.5.3. Inbertsioetarako laguntza-planetan: gazteentzako eta emakumeentzako baldintzak hobetzea.

- **AINZAT HARTUTAKO EKINTZAK**
- Foru-laguntzen planetan finantzaketa berrikustea. **(FFAA)**
 - *Laguntzen ehunekoen analisia (gazteentzako gehieneko laguntza).*
 - *Hautaketa-irizpideak eta baremoa ezar dakiekeen inbertsioak berrikustea.*
- **HEDATZE-DATAK:** 2025eko lehen seihilekoa.
- **GUTXI GORABEHERAKO GUZTIZKO AURREKONTUA:** 3.800.000 euro.

5.5.4. Laguntza fiskalen analisia.

- **AINZAT HARTUTAKO EKINTZAK**
- Nekazaritza-sektorerako dauden laguntza fiskalen banakatzea, lurralde historikoaren arabera. **(FFAA)**
 - *Azken erreforma fiskala onartu ondoren nekazaritza-forfaitean dauden laguntza fiskalen katalogoa deskribatzea.*
 - Laguntza fiskal berriak abian jartzeko aukera analizatzea. **(FFAA)**
 - *Zerbitzu ekosistemikoen ondoriozko kenkari fiskalak.*
 - *Aziendaren amortizazioa.*
 - *Gazteentzako kenkari espezifiko posibleak.*
- **HEDATZE-DATAK:** 2025eko bigarren seihilekoa.
- **GUZTIZKO AURREKONTUA:** funts-zuzkidura espezifikorik gabe⁸.

⁸ Kenkari posibleen eraginaren kalkulua.

5.6. INSTALATZEN DIREN GAZTEEK FINANTZAKETA IRISPIDEAN IZATEA

5.6.1.SENDOTU⁹ finantza-tresna propioa abian jartzea.

➤ AINTZAT HARTUTAKO EKINTZAK

- SENDOTU tresna aktibatzea, gazteei instalazioaren lehen urteetan emandako maileguak finantza-erakundeen aurrean bermatzeko. **(EJ)**
 - Gazteen inbertsioen finantzaketa publikoa osatzea ahalbidetzen du, beren enpresa-plana gauzatzeko, edo Bruselak finantzaketa publikoarekin onartzen ez dituenak (lurrak eta animaliak erostea).

➤ HEDATZE-DATAK: 2025eko lehen sei hilekoa.

➤ GUTXI GORABEHERAKO GUZTIZKO AURREKONTUA: 9.750.000 euro.

⁹ Ikus IV. ERANSKINA.- SENDOTU FINANTZA-TRESNA

5.7. PRESTAKUNTZA ETA AHOLKULARITZA

5.7.1. Prestakuntza nekazaritza-eskolen bitartez indartzea.

➤ AINTZAT HARTUTAKO EKINTZAK

- Hezkuntza Sailarekin koordinatzea errelebora bideratutako nekazaritza-eskoletan prestakuntza hobetzeko. **(EJ-HAZI)**
 - *Lantalde bat eratu da Hezkuntza Sailarekin, honako helburu hauek betetzeko:*
 - *Prestakuntza arautuan (erdi- eta goi-mailakoan) curriculum-profilak berrikustea.*
 - *Nekazaritza-eskoletako gazteei etorkizunari begira dituzten asmoei buruzko inkestak egiteko aukera baloratzea.*
 - *Xede posibleei buruzko orientazioak (nekazaritzako test-espazioak, foru-aldundien ordezkatzeko-zerbitzuak, LANAGRO, egonaldi praktikoak eta abar).*
 - *Prestakuntza arautua osatzeko Lanbide Heziketaren ondoko espezializazio-programak ezartzeko aukera analizatzea.*

➤ **HEDATZE-DATAK:** 2025eko lehen sei hilekoa. (2025/2026 ikasturtea)

➤ **GUZTIZKO AURREKONTUA** funts-zuzkidura espezifikorik gabe.

5.7.2. DIGITALIZAZIOKO, AGRITECH ALORREKO eta BERRIKUNTZAKO prestakuntza indartzea.

➤ AINTZAT HARTUTAKO EKINTZAK

- Digitalizazioko, Agritech alorreko eta berrikuntzako prestakuntza espezifikoak diseinatzea NEIKERekin lankidetzan. **(HAZI)**
 - *Besteak beste, nekazaritzako elikagaien negozio dibertsifikatuak (nekazaritza-turismoa, merkataritza elektronikoa, ustiattegiko eraldaketa, zuzeneko salmenta eta abar) ezartzeko prestakuntza indartuko da, baita inbertsio handiko proiektuei aurre egiteko finantza-prestakuntza ere.*

➤ **HEDATZE-DATAK:** 2025eko bigarren sei hilekoa.

➤ **GUZTIZKO AURREKONTUA:** 150.000 euro.

5.7.3. ARTZAIN ESKOLA eta BEHI ESKOLA mantentzea eta hobetzea.

➤ AINTZAT HARTUTAKO EKINTZAK

- Bi ikastetxeetan egungo prestakuntza-eredua analizatzea. **(HAZI)**
 - Hobekuntza-esparruak identifikatzea.

- BEHI ESKOLAREN iraunkortasuna analizatzea.
- ARTZAIN ESKOLAREN instalazioak hobetzea.

➤ **HEDATZE-DATAK:** 2025eko bigarren seihilekoa.

➤ **GUZTIZKO AURREKONTUA:** 796.000 euro.

5.7.4. Gazteak nekazaritza-sektorean instalatzeari lotutako aholkularitza indartzea.

➤ AINTZAT HARTUTAKO EKINTZAK

- Gazteen instalazioan aholkularitza-zentroen laguntza hobetzea. **(EJ-HAZI)**
 - *GAZTENEK txertatze-proiektuak monitorizatzeko ikastaro espezifikoak.*
 - *AKIS Foroan parte hartzea, EAEko nekazaritza-sektorerako berrikuntza eta teknologia berriak transferitzeko.*
 - *Instituzioek aholkularitza-zentroen betetze-adierazleen jarraipena egitea (aholkularitzari buruzko dekretu berria).*

➤ **HEDATZE-DATAK:** 2026ko lehen seihilekoa

➤ **GUZTIZKO AURREKONTUA:** funts-zuzkidura espezifikorik gabe.

5.7.5. Ustategien lagatzaile potentzialentzako prestakuntza espezializatua.

➤ AINTZAT HARTUTAKO EKINTZAK

- Ustategien lagatzaile potentzialei zuzendutako prestakuntza-ibilbideak ¹⁰, ustategi bat eskualdatzeari lotutako zenbait kudeaketari buruzko informazioa emango dietenak: alderdi fiskalak, NPEa, Belaunaldien arteko Erreleboa egiteko Estrategia Integralean aintzat hartutako laguntzak. **(GFA-HAZI)**

¹⁰ Etorkizuna Bermatuz ([“Etorkizuna Bermatuz” Programaren Bilera Informatiboak - Landa Eremua - Gipuzkoako Foru Aldundia](#))

5.8. BIZI-KALITATEA

5.8.1. Nekazaritza-jarduera egikaritzea erraztuko duten landa-inguruneko zerbitzuak eta ekipamenduak indartzea eta hobetzea

➤ AINTZAT HARTUTAKO EKINTZAK

- LEADER estrategian eta Landa Garapenerako Eskualdeetako Programetan gaztetzeko sektoriala ahalbidetuko duten ekipamenduak lehenestea (zuntz optikoa, banku-zerbitzuak, etxebizitzaren sustapena, aisialdi-, kultura- eta kirol-ekipamenduak, eta abar). **(EJ-HAZI)**
- Ustiatzearen titularrentzako ordezkatzeko-zerbitzuak indartzea **(FFAA)**.
- Ustiatzearen langileak emateko zerbitzu-enpresak garatzen laguntzea (EJ, Ekonomia, Lan eta Enplegu Saila).

➤ HEDATZE-DATAK: 2025eko bigarren seihilekoa

➤ GUZTIZKO AURREKONTUA: funts-zuzkidura espezifikorik gabe¹¹.

¹¹ Egindako inbertsioen eragina, ordezkatzeko-zerbitzuen kostuak, eta abar.

6. ERANSKINAK (ZIRRIBORROA)

I. ERANSKINA.- NEKAZARI GAZTEEN ESTATUTUAREN (NGE) 8/2014 DEKRETUAREN ALDAKETA

Nekazari Gazteen Estatutuaren Jarraipen Batzordeak orain arte adostu dituen aldaketen zerrenda:

➤ **IZENBURUA**

Aldatu:

Gaztelaniazko testuan “Estatuto de las personas jóvenes agricultoras” kendu eta hau jarri: “Estatuto de *los y las* jóvenes agricultoras”.

(Aldaketa testu osoan zehar egin behar da: “personas jóvenes agricultoras” sistematikoki kendu eta “los y las jóvenes agricultoras” jarri).

➤ **ZIOEN AZALPENA**

Nekazari gazteen eskuetan dauden ustiatgien titulartasunaren (sexuen eta titulartasun motaren arabera) eta belaunaldien arteko erreleborik gabeko ustiatgien (12.219 ustiatgien % 52) egungo egoerari buruzko datu eguneratuak (2020ko zentsua) sartzea.

2005-2014 aldiko Nekazari Gazteen Planaren erreferentzia aldatu.

TESTU hau gehitu:

Baserritar gazteen egoerari dagokionez, oraindik ere desberdintasunak daude sexuen artean, gazteen eskuetan dauden ustiatgietan emakume titularren ehunekoa gizonena baino askoz ere txikiagoa da-eta. Behar-beharrezkoa da, hortaz, gizon eta emakume gazteen benetako berdintasuna sustatzeko neurriak hartzea, emakume gazteek lan-aukerak izan ditzaten, hala nahi badute, landa-inguruneetan jarraitzeko eta belaunaldien arteko erreleboa lortzeko.

Aldatu:

– Lan-autonomia eta independentzia erabakiak hartzeko, familia-unitate guztiak enpresa-proiektuan parte har dezakeen ingurune batean.

Eta hau jarri:

– Lan-autonomia eta erabakiak hartzeko independentzia.

Aldatu:

Nekazaritza-ustiattegietako jabe gehienek zahartzea da oztopo nagusietako bat nekazaritzaren modernizaziorako eta produkzio-sare biziduna lortzeko, eta, beraz, gazteei ustiategi profesionalaren gaineko erantzukizuna eta titulartasuna ahalbidetzea da estatutu honen helburu nagusia.

Eta hau jarri:

Nekazaritza-ustiategiaren titular gehienek zahartzea da nekazaritza modernizatzeko eta produkzio-sare biziduna lortzeko oztopo nagusietako bat. Beraz, estatutu honen helburu nagusia da gazteek, emakumeek eta gizonen ustiategi profesionalen erantzukizuna eta titulartasuna irispidean izan dezaten ahalbidetzea, aukera- eta tratu-berdintasunean, eta, horretarako, emakumeen eta gizonen benetako aukera-berdintasuna sustatzeko neurriak hartzea.

➤ **2. ARTIKULUAREN ALDAKETA**

Definizio hau sartuko da:

- Bitartekotza-zerbitzua: foru-aldundiek zerbitzu hori eskainiko dute, dauden aukerei buruzko informazioa emateko eta, hartara, belaunaldien arteko erreleboa errazteko.

➤ **4., 5. ETA 6. ARTIKULUEN ALDAKETA**

4. ARTIKULU BERRIA: NEKAZARITZA-LURZORUA IRISPIDEAN IZATEKO TRESNAK

1.- EAEko administrazioek lehentasuna emango diete instalatuta dauden edo instalatu nahi duten nekazari gazteei, nekazaritza-lurzorua eskuratzeari edo erabiltzeari loturik kudeatzen dituzten tresnak irispidean izateko, hala nola nekazaritza-lurzorua bankuak edo funtsak, agroaldeak, mendi publikoak edo herri-mendiak, edo nekazaritza-jarduera probatu nahi dutenentzako test moduko beste lurzoru batzuk.

2.- Horretarako, tresna horien kudeaketan artikulatuko dira emakumeen eta gizonen benetako berdintasuna sustatuko duten ekintza positiboak, tasa edo kanonetako salbuespenak, eta sustapen-neurriak, baita lehentasun efektibo hori ahalbidetuko duten kontrapartidak ere.

3.- Lehentasuna emango zaie titular bakarra emakume gazte bat duten ustiategiaren eskabideei. Baterako titulartasuneko pertsona juridikoen kasuan, lehentasuna emango zaie gizon eta emakume gazteen artean partekatutako titulartasuneko ustiategiaren eskabideei, edo emakume gazteen eskuetan dauden partaidetza sozialak gutxienez % 50ekoak direnei, bazkideak bi badira, edo, gainerako kasuetan, gutxienez orekatuak direnei.

5. ARTIKULU BERRIA: ERRELEBORIK GABEKO USTIATEGIAK ESKUALDATZEA

1.- EAEko administrazioek belaunaldien arteko erreleborik gabeko ustategiak instalatuta dauden edo instalatu nahi duten nekazari gazteei eskualdatzea ahalbidetuko duten tresnak sustatuko dituzte, hala nola bitartekotza-zerbitzua, edo NPEaren esparruan helburu hori bideratzen lagunduko duten esku-hartzeak abian jartzea.

2.- Lehentasuna emango zaie titular bakarra emakume bat duten ustategien eskabideei. Baterako titulartasuneko pertsona juridikoen kasuan, lehentasuna emango zaie gizon eta emakumeen artean partekatutako titulartasuneko ustategien eskabideei, edo emakumeen eskuetan dauden partaidetza sozialak gutxienez % 50ekoak direnei, bazkideak bi badira, edo, gainerako kasuetan, gutxienez orekatuak direnei.

6. ARTIKULU BERRIA: GAZTEAK NEKAZARITZA-SEKTOREAN LEHEN ALDIZ INSTALATZEA

2. puntua aldatu:

2.- Laguntza horiek emateko Gaztenek prozeduraren artikulazioak barnean hartuko ditu, publizitate, gardentasun, lehiakortasun, objektibotasun, berdintasun eta diskriminaziorik gabeko printzipioekin batera, gaztearen trebakuntza, proiektuaren bideragarritasuna, eta proiektuaren monitorizazioa, tutorizazioa eta ebaluazioa, pixkanakako sartzearen printzipioan oinarrituta.

Eta hau jarri:

2.- Laguntza horiek emateko Gaztenek prozeduraren artikulazioak barnean hartuko ditu, publizitate, gardentasun, lehiakortasun, objektibotasun, berdintasun eta diskriminaziorik gabeko printzipioekin batera, emakumezko eta gizonezko nekazarien benetako berdintasuna sustatuko duten ekintza positiboak, pertsonen trebakuntza, proiektuaren bideragarritasuna, eta proiektuaren monitorizazioa, tutoretza eta ebaluazioa, pixkanaka sartzearen printzipioan oinarrituta.

Epigrafe berria gehitu:

5.- Gaztenek prozedura zehaztuko diren hobekuntza-premien arabera eguneratuko da, Nekazaritza, Elikadura eta Landa Garapen Politikako Batzordeak erabaki ondoren.

➤ 9., 10. ETA 11. ARTIKULUAK AURRERANTZEAN 7., 8. ETA 9. ARTIKULUAK IZANGO DIRA, TESTUA ALDATU GABE

Lehenengo 10. artikuluko 2. apartatua

2.- Nekazari gazteak elkarte edo korporazio batean integratuak baldin badaude, edo horietan sartzeko konpromisoa hartu badute, aldeotasuna handiagoa izango da.

Aldatu eta hau jarri:

2.– Nekazari gazteak egitura asoziatibo edo kooperatibo batean integratuta badaude, edo egitura horretan sartzeko konpromisoa hartu badute, ekintza positiboa handiagoa izango da, batez ere emakumezko nekazarien kasuan.

➤ **12. ARTIKULUAREN ALDAKETA**

10. ARTIKULU BERRIA: LAGUNTZA FISKALAK

b) epigrafea zuzentzen da

Beren ustiatagia nekazari gazteei eskualdatzen edo lagatzen dietenentzat.

➤ **13., 14. ETA 15. ARTIKULUEN EZABAKETA**

➤ **16. ARTIKULUAREN ALDAKETA**

Egungo testua zuzentzen da.

➤ **11. ARTIKULU BERRIA: ELKARTEAK EGITURATZEKO LAGUNTZA**

1.– Nekazaritzako egitura asoziatibo edo kooperatibo bateko kide diren gazteek beren puntuazioan gutxienez % 10 gehigarria izango dute beren proiektuen baremoa ezartzean, EAEko nekazaritza-administrazioek egiten dituzten deialdietan.

2.– Nekazaritzako eskumenak dituzten EAEko administrazioek, gizarte-ekonomiako eskumenak dituen Eusko Jaurlaritzako sailarekin koordinatuta, nekazaritzako elikagaien balio-katearen maila guztietan kooperatibetan sartzeko laguntzak ezartzea bultzatuko dute, eta, bereziki, enpresa kooperatiboak uzten dituzten kideen ordezkariak sartzeko.

3.– Gazteak, bereziki emakume gazteak, nekazaritzako elkarte profesionaletan edo produktoreen antolakundeetan integratzea bultzatuko da. Horretarako, haien parte-hartzea sartuko da dirulaguntzei buruzko arauen lehentasun-irizpideen artean.

➤ **17. ARTIKULUAREN EZABAKETA**

➤ **18., 19. ETA 20. ARTIKULUAK AURRERANTZEAN 12., 13. ETA 14. ARTIKULUAK IZANGO DIRA, TESTUA ALDATU GABE.**

Egungo 18.2 artikulua

2.– Euskal nekazaritza-administrazioek nekazari gazteen presentzia sustatuko dute, horien partehartzea sartuz lehentasunezko erizpideen artean dirulaguntzei buruzko arauetan, nekazaritza-edo landa-eremuan jarduten duten elkarteetan eta erakunde profesionalen, enpresa-arlokoen, sindikatuen edo beste mota bateko erakunde zuzendaritza-organismoetan.

Aldatu eta hau jarri:

2.– EAEko nekazaritza-administrazioek gazteen presentzia sustatuko dute, bereziki emakume gazteena, nekazaritza- edo landa-esparruan jarduten duten elkarte eta antolakunde profesionalen, enpresa-arlokoen, sindikatuen edo bestelakoen zuzendaritza-organoetan. Horretarako, haien parte-hartzea sartuko dute dirulaguntzei buruzko arauen lehentasun-irizpideen artean.

Egungo 19. artikulua.

3. apartatua aldatu:

3.– Aipatutako sarien epaimahaia honako hauek osatuko dute: nekazaritza gaietan sail eskudunaren ordezkari batek, Foru Aldundi bakoitzeko ordezkari batek, Hazi Fundazioaren ordezkari batek, kudeaketa-zentroen ordezkari batek, eta nekazaritza-sindikatuaren ordezkari batek. Epaimahai horrek emakume eta gizonen osaera orekatua izan beharko du, behar bezala arrazoitutako arrazoi funtsatuak eta objektiboak daudenean izan ezik.

Apartatu berri bat gehitu:

5. Hautagaitzak baloratzean, emakumeen lana errekonozitu eta ikusaraztearren, emakumezko nekazari gazteen hautagaitzei emango zaie lehentasuna.

➤ **21. ARTIKULUAREN EZABAKETA**

➤ **22. ARTIKULUA AURRERANTZEAN 15. ARTIKULUA IZANGO DA, TESTUA ALDATUTA**

1. EAEko instituzioek hurbiltze-beken deialdiak egin ahal izango dituzte, nekazaritza-sektorearen eta ekintzailetzaren arloan eskaintzen dituen aukeren ezagutza hobea ahalbidetzeko.

2. Hurbiltze-beka horien erregulazioa erregelamendu bidez ezarriko da.

➤ **23. ARTIKULUAREN ALDAKETA**

Egungo testua zuzentzen da.

➤ **16. ARTIKULU BERRIA: ORDEZKATZE-ZERBITZUAK**

1.– Amatasunaren eta aitatasunaren ondoriozko eskubideak EAEko administrazioek babestuko dituzte. Horrela, haurdunaldiagatik, adopzioagatik edo harreragatik, edoskitzeagatik edo seme-alabak zaintzeagatik nekazaritza-jarduera eteten den bitartean, ordezkatzeko zerbitzuak edo gizarte-zerbitzuak irispidean izatea erraztuko da, indarrean dagoen legeriak ezartzen duen baxa-aldiak irauten duen artean.

2.– Aldi baterako ezintasunaren, oporraldien edo atsedenen kasuetan ordezkatzeko-zerbitzuak irispidean izateko, eta, bereziki, mendekotasuna duten pertsonen zaintzaileen kasuetan, lehentasun-irizpideen artean sartuko da ustiategiak gazteen titulartasunekoak izatea.

3.– EAEko administrazioek gizarteratzeko eta laneratzeko enpresak sortzea bultzatuko dute, EAEko nekazaritza-ustiategiarentzako ordezkatzeko-zerbitzuak betetzeko langileak jar ditzaten.

➤ **24. ETA 25. ARTIKULUAK AURRERANTZEAN 17. ETA 18. ARTIKULUAK IZANGO DIRA, TESTUA ALDATU GABE**

25. artikulua ezabatu

➤ **26. ARTIKULUAREN ALDAKETA**

Egungo testua zuzentzen da.

➤ **19. ARTIKULU BERRIA: SORRERA ETA OSAERA**

1.– Estatutu honetan xedatutakoa betetzearen jarraipena egiteko, jarraipen-batzorde bat sortzen da, eta osaera hau izango du:

- a) Eusko Jurlaritzako nekazaritza- eta abeltzaintza-arloan eskumena duen zuzendaria edo haren ordezkaria; batzordeko buru izango da.
- b) Eusko Jurlaritzako nekazaritza- eta abeltzaintza-arloan eskumena duen zuzendaritzako langileen artean hautatutako pertsona bat.
- c) Eusko Jurlaritzako landa-garapenaren arloan eskumena duen zuzendaritzako langileen artean hautatutako pertsona bat.
- d) Nekazaritza-arloan eskumena duen saileko Berdintasunerako Administrazio Unitateko langileen artean hautatutako pertsona bat.
- e) Foru-aldundien ordezkari bana, nekazaritza-arloan eskumena duten sailekoa/departamentukoa.
- f) EAEko ordezkariarik handieneko nekazaritza-sindikatuaren ordezkari bana.
- g) Aholkularitza-entitatearen ordezkari bat.
- h) EUDelen ordezkari bat.
- i) Eusko Jurlaritzako Gazteria eta Emantzipazio Zuzendaritzaren ordezkari bat.

1 bis. – Batzordeak emakume eta gizonen osaera orekatua izan beharko du, behar bezala arrazoitutako arrazoi funtsatuak eta objektiboak daudenean izan ezik.

2.– Gai espezifikoak aztertze arloko espezialisten presentzia behar denean edo batzordekoak ez diren beste espezialista batzuk behar direnean, batzordeko buruak eskatuta deitu ahal izango zaie.

➤ **27. ETA 28. ARTIKULUAK AURRERANTZEAN 20. ETA 21. ARTIKULUAK IZANGO DIRA, TESTUA ALDATU GABE**

➤ **XEDAPEN IRAGANKORRA EZABATU**

II. ERANSKINA.- INTERES-ADIERAZPENAREN DEIALDIAREN JARRAIBIDEAK

1. Parte-hartzaileak

- 1.1. Horretarako onartutako formularioa beteko duteko Foru Aldundiak garatzen duen/dituen(e)(a)n parte hartzeko interesa dutenko lurralde historikoko
.....
- 1.2. Deialdi honek interes-adierazpenetarako deia hartzen du barnean, baina ez du inola ere ekarriko administrazio-prozeduran alderdi izaterik, eta ez du inongo eskubiderik sortuko.

2. Interes-adierazpena aurkezteko epea, modua eta lekua.

- 2.1. Interesdunek dagokien interes-adierazpena aurkeztu beharko dute foru-aginduen II. eranskin gisa agertzen den formularioaren bitartez,ko Foru Aldundiko Zerbitzuari zuzenduta.
- 2.2. Interes-adierazpen hori aurkezpen elektronikoaren bitartez helarazi beharko dako Foru Aldundiko edo urriaren 1eko 39/2015 Legearen 2.1 artikuluan aintzat hartutako administrazioetako bakoitzeko Erregistro Orokorrean, aurrez aipatutako legearen 14.2 eta 16.4 artikuluetan ezarritakoa ezertan galarazi gabe.
- 2.3. Interes-adierazpena aurkezteko epea hilabetekoa izango da, ebazpen haun argitaratu eta hurrengo egun baliodunetik aurrera.

3. Interes-adierazpenak aztertzea eta parte-hartzaileen zerrenda eratzea

- 3.1. Norgahiagoka bidezko deialdia ez denez, eskabidea betez interesa adierazten duten eta 1. apartatuan finkatutako irizpide orokorrak betetzen dituzten pertsona fisiko eta juridiko guztiak onartuko dira deialdian.
- 3.2. Eskabideak aztertu ondoren, Sailak/Departamentuak zerrenda horretan sartzeko ukatuko die 1. artikuluan ezarritakoaren arabera desegokitzen jotzen dituenen, eta bazterketa hori interesdunei jakinaraziko die.

- 3.3. ekintzetan parte hartzen dutenak zerrendan sartu izana eskatzaileei jakinaraziko zaie, eta edozein unetan eskatu ahal izango dute zerrenda horretan baja emateko.
- 3.4. Era berean, 1. apartatuan aurreikusitako irizpideak betetzeari uzten dioten parte-hartzaileei ofizioz emango zaie baja.
- 3.5. Zerrendan onartzeak eskubidea emango duko Foru Aldunditik lurralde historikoko(a)ri loturik garatzeko aurreikusitako ekintzei buruzko informazioa jasotzeko, eta haietan parte hartzeko.
- 3.6. Parte-hartzaileen zerrendan sartutako pertsonen esku hartzen duten jarduketa horiek guztiakko Foru Aldundiko Saileko/Departamentuko Zerbitzuak koordinatuko ditu.
- 3.7. Parte-hartzaileen zerrendan sartzeak ez du esan nahiko Foru Aldundiak inolako ordainik egingo duenik.
- 3.8. Dena den, eranskin honen 2.3 apartatuan aurreikusitakoa gorabehera, hasierako zerrenda egin ondoren, parte-hartze handiagoa bermatze aldera, kide gehiago sartu ahal izango dira hasierako zerrenda horretan, baldin eta 1. apartatuan aurreikusitako baldintzak betetzen badituzte.

4. Datuen konfidentzialtasuna

- 4.1. Parte-hartzaileen zerrendako kideek, deialdiaren xedearekin erlazionatutako beren jarduerari buruz lortutako datuen titularrek, datu horiekko Foru Aldundiarekin partekatzeko konpromisoa hartzen dute.
- 4.2. Era berean,ko Foru Aldundiak datu horien konfidentzialtasuna errespetatzeko konpromisoa hartzen du. Izan ere, datu horiek helburuak lortzeko erabili ahal izango ditu, baina ezin izango ditu partekatu, inola ere, beste antolakunde batzuekin, ezta datu horien lagatzaileen berriazko baimenik gabe argitaratu ere.
- 4.3. Deialdi honen helburuak lortzearen ondorioetarako, parte-hartzaileek baimentzen dute deialdian parte hartzeari publizitatea ematea.

III. ERANSKINA.- NPEPE-KO 6961.1 ESKU-HARTZEA: NEKAZARI GAZTEAK EZARTZEA. EGUNGO GAZTENEK PROZEDURA

Helburua:

- Nekazari gazteak nekazaritza-ustiategien titular gisa ezartzeak funtsean laguntzen du sektorerako hain beharrezkoa den belaunaldien arteko erreleboa egiten eta landa-eremuetan biztanleria finkatzen. Esku-hartze horren helburua da, hortaz, belaunaldien arteko erreleboan laguntzea eta landa-eremuetan enplegua sortzea.
- 3 foru-aldundiek kudeatu eta finantzatzeko dute.
- Instalaziorako laguntza honenbesteko zenbatekoen bidez zehazten da; 70.000 euroraino irits daitezke instalazio-proiektuaren ezaugarrien arabera: inbertsio-bolumena, produkzio-eredua, merkaturatze-eredua, ustiategiaren ezaugarriak, emakumea... 10.500 euroko aparteko prima emakumeentzat. Laguntza bi tartetan ordainduko da (2/3 hasieran eta 1/3 amaieran).
- Instalazio-proiektuak enpresa-planen bidez eta GAZTENEK laguntza-programaren pean garatzen dira.

Onartzeko baldintzak:

- Eskabidearen unean 18 urte beteta izatea eta 40 urte baino gehiago ez izatea.
- Enpresa-plan bat aurkeztea, haren bideragarritasuna aztertzeko balioko duen gutxieneko edukia izango duena. Plan horretan trebakuntza, prestakuntza edo konpetentzia profesional egokiak eskuratzeko konpromisoa hartuko dute.
- Lehen instalaziorako laguntza ez jaso izana eta instalatutzat ez jo izana.
- Laguntza eskatu aurreko 24 hilabeteetan ustiategi baten titulartasuna eskuratu duten gazteen eskabideak onartu ahal izango dira. Ondorio horietarako, ez da ulertuko gazte bat aldezturik instalatuta dagoenik, baldin eta titular gisa alta emanda egon bada 0,20 ULUtik beherako ustiategi bat eskatu aurreko 24 hilabete baino lehenagotik, indarreko legeria autonomikoaren arabera kalkulaturik.
- 200 orduko trebakuntza eta konpetentzia profesionala egiaztatzea. Ordu horietako 100 laguntzaren eskabidea egiteko unean egiaztatu beharko dira. Behar adinako trebakuntza eta konpetentzia profesionala egiaztatze modua laguntza-deialdietan zehaztuko da, GAZTENEK prozeduraren arabera.
- Instalazio-prozesua GAZTENEK prozeduran aurreikusitako baldintzetan onartzea.

Gazte onuradunak enpresa-plana ezartzean erdietsi behar dituen konpromisoak: ➤ Nekazaritza-ustiategi batean lehen aldiz ezartzea titular gisa edo ustiategi horretako bazkide gisa. ➤ Nekazari nagusia izatea. ➤ Ustiategiaren kontrol efektiboa erdiestea. ➤ Nekazaritza-jardueran zuzenean aritzea. Ezin izango du soldatapeko langile jarraiturik kontratatu sartzen den enpresarenaz bestelako dedikazioen bat izateko. ➤ Enpresa-plana bertan adierazten den epean egikaritzea. Gehienez 5 urtekoa izango da, laguntza emateko ebazpenaren datatik aurrera. Produkzio-orientazio batzuetan eta/edo salbuespenezko egoeretan, epe hori GAZTENEK prozeduran ezarritakoaren arabera luzatu ahal izango da. ➤ Betebehar fiskalak eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiarekiko betebeharrak egunean izatea. ➤ Ustiategian ULU primario bati dagokion lan-bolumena sortzea, indarreko legeria autonomikoaren arabera kalkulatuta. ➤ Bere nekazaritza-jardueraren ondorioz Gizarte Segurantzako Langile Autonomoen Araubidean alta emanda egotea. ➤ Bere nekazaritza-jarduerari dagozkion zentsu fiskaletan alta emanda egotea. ➤ Nekazaritza-jarduera instalatzen den ustiategian gutxienez bost urtez egikaritzea, laguntzaren azken ordainketatik aurrera, ezarritako mugariak betez. Haiek betetzen ez baditu, laguntza osorik edo partzialki itzuli beharko du GAZTENEK prozeduraren arabera.	Nekazari gaztea instalatzen den ustiategi onuradunak erdietsi behar dituen konpromisoak: ➤ Berez unitate tekniko-ekonomiko bat izatea, jarduera behar bezala egikaritzeko behar diren baliabideekin. ➤ Ustiategiak eskabidea egiten den lurralde historikoko Nekazaritza Ustiategien Erregistroan inskribatuta egon beharko du. ➤ Gutxienez 20.000 euroko marjina garbia izan beharko du instalatzen den gazte bakoitzeko. ➤ Nekazari gaztea instalatzen den nekazaritza-ustiategia ezin da etorri aurreko beste ustiategi baten zatiketarik, eta biek aldi berean iraun, baldin eta titularrak gaztearekin lehen mailako odolkidetasuneko edo ezkontza-ahaidetasuneko harremana badu edo ezkontidea bada, titular horrek nekazaritza- edo abeltzaintza-jarduera uzten duenean izan ezik.
--	--

IV. ERANSKINA.- BELAUNALDIEN ARTEKO ERRELEBOA SUSTATZEN LAGUNTZEKO DEKRETUAREN PROPOSAMENA

Xedea eta helburua

1. lerroa.- Beren ustiategiak gazteei nekazaritzako test-espazio igarokor gisa lagatzen dizkieten ustiategien titularrentzako laguntzak arautzea¹².

2. lerroa.- Belaunaldien arteko erreleborik gabeko nekazaritza-ustiategi bideragarriak sustatzeko laguntzak arautzea.

Laguntzen kudeaketa (deialdiak, espedienteen azterketa eta ebazpen-proposamena) foru-dekretuen bidez arautuko da lurralde historiko bakoitzean. Laguntzak ondoz ondoko lehia bidez kudeatuko dira aurrekontu erabilgarria agortu arte.

Finantzaketa

Eusko Jaurlaritzaren funts propioak. (Estatu-laguntza)

Aurrekontua:

- 1. lerroa: urtean 500.000 euro.
- 2. lerroa: urtean 1.000.000 euro.

Onuradunak

Bi laguntzen onuradun izango dira honako baldintza hauek betetzen dituzten belaunaldien arteko erreleborik gabeko nekazaritza-ustiategien lagatzaileak¹³:

1. Adina eta egoera:

- 57 urtetik gorakoa izatea edo erretiro-egoeran egotea.
- Hautabidez, nekazaritza-jarduerarako ezintasun iraunkorra izatea.

¹² Nekazaritzako test-espazio igarokor batean, ustiategi baten titularrak haren kudeaketa partekatzen du, lan-kontratu bidez, ustiategia erosteko konpromisoa duen pertsona batekin edo batzuekin.

¹³ Lagatzaileak: eskualdatu nahi dituzten nekazaritza-ustiategien titular diren pertsona fisikoak edo juridikoak dira lagatzaileak.

2. Erregistroa eta jarduera:

- Ustiategiak Nekazaritza Ustiategien Erregistroan inskribatuta egon beharko du.
- 1048/2022 Errege Dekretuaren arabera nekazari aktiboa izatea.
- Nekazaritza-jarduera eskabidea egin aurretik gutxienez ondoz ondoko azken 7 urteetan egikaritu izana.

3. Baldintza espezifikoak:

- Lagatzen den ustiategiak¹⁴ 25.000 euroko gutxieneko balioa izan behar du guztizko produkzio estandarrean (GPE).¹⁵
- Ustiategia ezin zaie laga lehen mailako senideei (seme-alabei, ezkontideari, gurasoei), ezta ahaidetasun-maila horretako bazkideak dituzten pertsona juridikoei ere.
- Ustiategi asoziatiboen kasuan, erretiroa hartzen duen titular baten partaidetza-ehunekoa laga ahal izango da. Kasu horietan ez da transferitzen ustiategiaren titulartasuna, ustiategi bateko integrazioa baizik. Erregelamendu bidez zehaztuko dira eskualdatze-modalitate horretarako baldintzak eta betekizunak.

4. Lagatzailearen betebeharrak:

- Nekazaritzako test-espazio igarokorren lerroan:
 - Bere ustiategia eskuratzeko interesa duen pertsonari edo pertsonei ustiategian lan egiten uztea, gehienez ere bi urtez. Horretarako, interesdunak betetzeko onartzen dituen lagapen- eta aholkularitza-baldintzak finkatuko dituen lankidetzaproiektu bat egin beharko da.
 - Lagapen-hartzaileari egiten duen lana ordaintzea, erosketa arteko egonaldiaren iraupenaren arabera.
 - Lagatzaileak ezin izango du finantzatu, inola ere, lankidetzaproiektua sinatu aurreko azken urtean ustiategian dagoen langilerik.

¹⁴ Titularraren jabetzako zatia bakarrik.

¹⁵ GPEa honela definitzen da: ustiategi batek sortzen dituen urteko sarrera gordin teorikoak, haren produkzio-unitateak eta azken 5 urteetan horietatik jasotako batez besteko prezioa oinarri hartuta. Dena den, foru-aldundiak, beren datuetan oinarrituta, lagatzen den ustiategiaren GPE erreala zehazten ahaleginduko dira.

➤ Erreleboa sustatzeko lerroan:

- Nekazaritza-ustiategiaren jabetzako aktiboak lankidetzaproiektu baten bidez lagatzea¹⁶, lagapen-hartzaileari eskubideak eta ezagutzak transferitzea barne.
- Lagapenaren ondorengo bost urteetan nekazaritza-jarduerarekin erlazionatutako laguntzak ez eskatzeko konpromisoa, eta EAEko Nekazaritza Ustiategien Erregistroan berriz alta ez ematekoa, non eta autokontsumorako erreserba txiki bat mantentzen ez duen.
- Kasu horretan, lagatzaileak laguntza eskuratu ahal izango du, nahiz eta lagapen-hartzailearekin lan-kontratu bat izan.

Lagapen-hartzailearen baldintzak¹⁷

Lagapen-hartzaileek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

1. Adina eta nortasuna:

- Pertsona fisikoa bada, 18 eta 48 urte bitarteko adina izatea (biak barne).
- Pertsona juridikoa bada, bazkide guztiek bete behar dute adinaren baldintza.

2. Lagatzailearekiko harremana:

- Ez dute izan behar lagatzailearen lehen mailako senideak.

3. Baldintza profesionala:

- 18 eta 40 urte bitarteko adina badu: Gaztenek prozesuaren bitartez instalatu izana, edo prozesu horretan inskribatu eta bere enpresa-plana baliozkotu izana. Dena den, gaztea Gaztenek prozeduratik pasatu ez bada, enpresa-plana aurkeztu beharko du eta horretarako eratutako balorazio-batzordeak (HAZI + eraginpeko foru-aldundia) onartu beharko du plana.
- 41 eta 48 urte bitarteko adina badu: nekazari aktiboa ez izatea eta figura horretara urtebeteko gehieneko epean iristea, 1048/2022 Errege Dekretuaren edo ordezkotutako arauaren arabera.
- Pertsona juridikoa bada, gutxienez bazkideen % 50ek bete behar dituzte baldintza horiek.

¹⁶ Lagatzaileak autokontsumorako azalera txiki bat (gehienez 0,75 hektarea) edo azienda mantendu ahal izango du.

¹⁷ Lagapen-hartzaileak ustiatagia jasoko duten pertsona fisikoak edo juridikoak dira.

4. Lagapen-hartzailearen betebeharrak:

- Nekazaritzako test-espazio igarokorren lerroan:
 - Instalatzen denetik gehienez bi urteren buruan ustiategia erosteko konpromisoa ezartzea.
- Erreleboa sustatzeko lerroan:
 - Lagatako unitatea gehienez 5 urtez ustiatzea, eta ustiategia bere izenean inskribatzea EAEko Nekazaritza Ustiategien Erregistroan.

Lankidetzaproiektua

Lagatzailearen eta lagapen-hartzailearen arteko lankidetzaproiektua kontratudokumentu baten bitartez gauzatuko da bi lerroetan. Dokumentu horretan eduki hauek esplizitatu beharko dira:

1. Ustiategiaren hasierako egoera:

- Lagapenaren uneko nekazaritza-ustiategiaren deskribapen xehatua.
- Ustiategikoak diren elementuen zerrenda (lursailak, azpiegiturak, azienda, makineria eta abar).
- Lagatzen diren jabetzako elementuen eta ustiategiari lotutako eskubideen zerrenda.
- Ustiategia osatzen duten elementuen eta eskualdatutakoen deskribapena guztizko produkzio estandarraren (GPE) arabera baloratu beharko da.

2. Lagatzailearen konpromisoak:

- Nekazaritzako test-espazio igarokorren lerroan:
 - **Baterako lanaren baldintzak:** argi eta garbi ezarriko dira ustiategiaren baterako erabilera eta kudeaketaren baldintzak eta iraupena. Kudeaketa horrek barnean hartuko du lagapen-hartzaileari haren ondoriozko praktikan aholku ematea.
 - **Lagapen-hartzailearentzako ordainsaria:** ustiategia erosi arte ematen duen denboran lagatzaileak lagapen-hartzaileari emango dion ordainsaria ezarriko da.

➤ Erreleboa sustatzeko lerroan:

- **Nekazaritza-jarduera uztea:** EAEko Nekazaritza Ustiategiaren erregistroan titular aktibo gisa baja emateko betebeharra. Autokontsumorako azalera txiki bat edo azienda mantenduz gero, berriz eskatu beharko du alta erregistro horretan.
- **Eskubide-transferentzia:** ustiategiari lotutako eskubideak eskualdatzea.
- **Ezagutzaren transmisioa:** ustiategiaren kudeaketan zehar eskuratutako esperientzia eta jardunbideak transferitzen laguntzea.

3. Lagapen-hartzailearen konpromisoak:

➤ Bi lerroetan:

- **Enpresa-plana:** ustiategirako epe laburreko eta ertaineko helburuak eta jomugak eta ustiategiaren jasagarritasuna eta bideragarritasuna hobetzeko inbertsioen edo jardueren plana bilduko dituen enpresa-plana aurkeztea. Enpresa-plan hori EAEko nekazaritza-administrazio eskudunek baliozkotu beharko dute balorazio-batzordearen bidez (HAZI + eraginpeko foru-aldundia).
- **Aholkularitza:** prestakuntza edo aholkularitza jasotzea bai lagatzailearengandik bai kanpoko aholkulariengandik.

➤ Nekazaritzako test-espazio igarokorren lerroan:

- Lagatzen den **ustiatagia** gutxienez bi urtean **erosteko** konpromisoa ezartzea, lankidetzaproiektua bere gain hartzen duenetik aurrera.

➤ Erreleboa sustatzeko lerroan:

- **Ustiategiaren zuzeneko kudeaketa:** titulartasuna bere gain hartzea eta ustiategian aktiboki aritzea.

4. Eskualdatutako elementuak:¹⁸

- **Lurralde-basea:** lagatzen diren ustiategiko partzelen zerrenda.
- **Ondasun higigarriak eta higiezinak:** transferitutako instalazioen, makineriaren eta aziendaren xehetasuna.
- **Lagatzen diren ustiategiari lotutako eskubideak:** NPE laguntzetako eskubideak, ureztapena erabiltzeko eskubideak edo ustiategiari lotutako bestelakoak.

¹⁸ 4., 5., 6. eta 7. puntuak erreleboa sustatzeko lerroko lankidetzaproiektuan bakarrik.

5. Transferentzia-modalitatea:

- Eskualdatutako elementu guztiak xehatuko dituzten salerosketa- eta/edo errentamendu-kontratuak, gutxienez 15 urtekoak.

6. Lagatzailearen autokontsumorako erreserba (aukerakoa):

- Lagatzaileak autokontsumorako azalera txiki bat (gehienez 7.500 m²) edo azienda mantentzeko erabakia hartzen badu, argi eta garbi adierazi behar du lankidetzaproiektuan.

7. Betetzeko epeak eta baldintzak:

- Lagapena egikaritzeko kronograma xehatua.
- Alderdi bientzako epe labur eta luzeko betebeharrak.

9. Gatazkak ebaztea:

- Ustiategiaren kokalekuan eskumena duen foru-administrazioak lagatzailearen eta lagapen-hartzailearen artean sor daitezkeen desadostasunak ebazteko klausulak.

Lankidetzaproiektuak garbia eta xehatua izan behar du, eta alderdi biek izenpetu behar dute. Gainera, foru-agintaritza eskudunak ebaluatuko du, araudiaren baldintzak betetzen dituela eta laguntzen helburuekin bat datorrela ziurtatzeko.

Laguntzak

1. Nekazaritzako test-espazio igarokorren lerroan:

Urtean 17.000 euroko laguntza emango da ustiategian sartzen den pertsonako (lanbide arteko gutxieneko soldata gutxi gorabehera), gehienez ere bi urtez. Laguntza hori lagapen-hartzailearen edo lagapen-hartzaileen ordainsarira bideratuko da, ustiategia erosi arte. Zenbatekoa lagapen-hartzaileak ematen duen denboran hainbanatuko da, eskualdaketa gauzatzen den arte (bi urte gehienez). Laguntza hori ez da bideratuko, inola ere, ustiategian kontratatuta dauden langileak finantzatzera.

2. Erreleboa sustatzeko lerroan:

Laguntza sustagarri bakar bat emango zaio lagatzaileari ustiategia eskualdatzeko unean, honako baldintzatzaile hauekin:

- Lagapen-hartzailearen adina:

Irizpide horrek mesede egiten die nekazari gazte lagapen-hartzaileei, deialdiaren unean duten adinaren arabera.

- 18 eta 40 urte bitarteko adina (biak barne): 50.000 euro.
- 41 eta 48 urte bitarteko adina (biak barne): 35.000 euro.

- Lagapen-hartzailearen titulartasun-araubidea

Bi kasuetan, 5.000 euroko prima osagarria emango da, baldin eta lagatako ustategia lagapen-hartzailearen eta beste bazkide baten artean partekatutako titulartasuneko araubidera igarotzen bada, dela titulartasun partekatua, ondasun-erkidegoa edo nortasun juridikoa.

Bestelako xedapenak

Arau erregulatzaillean ezarriko dira izan litezkeen salbuespenei, gatazkei edo eranskin honetan jaso gabeko bestelako alderdiei buruzko xedapenak.

V. ERANSKINA.- SENDOTU FINANTZA-TRESNA

Helburua

Inbertsio-proiektuak sustatzea nekazaritza, basogintza, arrantza, elikagaigintza eta landa-garapenaren sektoreetan, eta, horretarako, Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritzak bermeak ematea Finantzen Euskal Institutuaren eta finantza-erakunde partaideen finantzaketari.

Entitate onuradunak

Finantzaketa hau eskatu ahal izango dute enpresa pribatuak, pertsona fisikoak edo juridikoak izanik ere, baldin eta kotizatu gabeko enpresa txiki edo ertainak badira, eta nekazaritza, basogintza, arrantza, elikagaigintza edo landa-garapenaren sektoreetan ari badira.

Baldintza nagusiak

- Inbertsio osoaren gutxienez % 20 finantzaketa pribatuak estali beharko du, lerro honetako finantzaketak kanpo.
- Inbertsioa Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-esparruan egitea.
- Foru-ogasunekiko betebeharrak fiskalak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean izatea.
- Onuradun izango den pertsona fisiko edo juridiko pribatua ez izatea "krisian dagoen enpresa".
- Edozein itzulketa-prozeduraren ordainketa-betebeharrak amaituta izatea.
- Ez izatea inolako zigor penalik ez administrazio-zigorrik, dirulaguntzak edo laguntza publikoak jasotzea eragozten duenik.
- Ez izatea konkurtso-deklaraziorik edo halako eskaririk, eta ez izatea kaudimengabea ezein prozeduratan.
- Egoitza fiskala paradisu fiskaltzat hartutako lurralde edo herrialde batean ez izatea.
- Ez egotea kaudimengabezia kolektiboko prozedura batean, edo ez betetzea taldeko kaudimengabezia-prozedura batean egoteko baldintzak, alderdi hartzekodunek eskatuta.

Finantzatu daitezkeen kostuak

Kapital finkoa finantzatzeko premiak estaltzea xede duten finantzaketa-eragiketak, aktibo finkoak eskuratzea dakartenak (Kontabilitate Plan Orokorraren 2. taldekoak), helburu bera lortzera atxikiak. Finantzaketa ezin izango da erabili pasiboaren berregituraketetarako edo birfinantzaketetarako.

Maileguaren baldintzak

- Tresna: mailegua, Elikagaien Kalitate eta Industriako Zuzendaritzaren bermearekin.
- Lerroaren muga: 17.550.000 euro.
- Zenbatekoa: gehienez 15.000.000 euro; inbertsio-proiektuaren % 80 finantzatuko da gehienez.
- Epea/gabealdia: gehienez ere 10 urte, kapitalaren amortizazioan 2 urterainoko gabealdia ezarrita.
- Interes-tasa: urtebeterako Euriborra, gehi % 2ko gehieneko diferentziala, 7 urtetik gorako epeetarako, eta % 1,75ekoa epe berdinetarako edo laburragoetarako. Kasu bakoitzean aplikatu beharreko gutxienezko tasa % 2koa eta % 1,75ekoa izango da. Hiru hilean behingo interes-likidazioa.
- Amortizazioa: sei hilean behingoa, lineala.
- Komisioak: salbuetsita.
- Bermeak: programaren berezko bermeaz gain, beste batzuk ere eskatu ahal izango dira, inbertsio-proiektuaren bideragarritasuna, eskatzailearen kaudimena eta finantzaketaren ezaugarriak kontuan hartuta.
- Aurkezteko epea: abenduaren 31, beste 24 hilabetez luzatzeko aukerarekin.

Europako Inbertsio Bankuak (EIB) lerro hau finantzatzen laguntzen du, EIBk Finantzen Euskal Institutuari ETE eta MIDCAPentzat emandako maileguaren bidez.

EIB Europar Batasuneko finantza-erakundea da, 1958an Erromako Itunak sortua, eta EBko estatu kideak dira haren akziodunak. Estatu kideen integrazio ekonomikoa eta gizarte-kohesio handiagoa bultzatuko duten inbertsioak finantzatzea du xede.

EIBtik datorren finantzaketak kreditu-iturri alternatiboek baino baldintza hobeak ditu. Horrek aukera ematen dio Finantzen Euskal Institutuari abantaila bat emateko, kostuari eta epeari dagokienez, EIBk inbertsioaren xedeari, produkzio-sektore motari, enpresaren tamainari, proiektuaren kostuari eta finantzaketa-epeari buruz ezartzen dituen hautagarritasun-irizpideak betetzen dituzten proiektuen finantzaketari.

VI. ERANSKINA.- JARDUKETEN LABURPENA

JARDUKETA	AURREKONTUA	HURRENGO URRATSAK	ARDURADUNA	ABIAN JARTZEKO AURREIKUSITAKO DATA
5.1 Esparru arauemailea: indarrean dagoen legeria berrikustea eta egokitzea.				
5.1.1 Nekazari Gazteen Estatutuaren (NGE) 8/2014 Dekretuaren aldaketa	FUNTS-ZUZKIDURARIK GABE	ALDAKETA OSATZEA	EJ-FFAA	2024KO LEHEN SEIHILEKOA
5.1.2 Nekazaritza Politika Erkidaren Plan Estrategikoa (NPEPE). NPE (Nekazaritza Politika Erkidea) laguntzak kobratzeko nekazari aktiboaren kontzeptua aldatzea	FUNTS-ZUZKIDURARIK GABE	ALDAKETA OSATZEA	EJ	2025EKO LEHEN SEIHILEKOA
5.2 EAEko nekazaritza-sektorea baliaraztea: sektorearen errekonozimendu soziala, ingurumen-artokoa eta ekonomikoa areagotzea.	825.000,00			
5.2.1 EAEko herritarrek nekazaritza-sektoreak gizarteari ematen dizkion balioen inguruan sentsibilizatzeko kanpaina	365.000,00	KANPAINAREN ZABALKUNDEA	EJ	2025EKO LEHEN SEIHILEKOA
5.2.2 Gazte potentzialak sektorean errentagarritasun onak lortzeko ahalmenaren inguruan sentsibilizatzeko kanpaina (enpresa-ikuspegia, arrakasta-ladibideak, potentzialtasuna duten sektoreak eta abar)	365.000,00	KANPAINAREN ZABALKUNDEA	EJ	2025EKO LEHEN SEIHILEKOA
5.2.3 EAEko nekazaritza-sektoreak gizarteari ematen dizkion zerbitzu ekosistemikoen eta kanpo-efektuen ebaluazio ekonomikoa egitea.	95.000,00	AZTERKETAREN ENKARGUA	HAZI	2025EKO LEHEN SEIHILEKOA
5.3 Gazteak sektorerara hurbiltzea: haien interesa eta hurbiltze aktiboa sustatzea.	2.315.000,00			
5.3.1 Nekazaritzako test-espazioak bultzatzea	1.500.000,00	NEURRIAREN ANALISIA	EJ-FFAA	2025EKO LEHEN SEIHILEKOA
5.3.2 Sektorerara hurbiltzeko bekak + Nekazaritzako Erasmus (gurean antzeko egitura duten ustiatgetietako esperientziak beste autonomia-erkidego batzuetan edo atzerrian).	800.000,00	OINARRIAK IDATZTEA	EJ-HAZI	2025EKO LEHEN SEIHILEKOA
5.3.3 Sektorerako ordezkatzeko-zerbitzuak eta langile-enpresak, bizi-kalitatea eta gazteentzako sarbide-aukera hobetzeko bide gisa.	FUNTS-ZUZKIDURARIK GABE	HOBEKUNTZA-ESPARRUAK EZARTZEA	FFAA	2025EKO BIGARREN SEIHILEKOA
5.3.4 Gazteen hurbiltzeta bultzatzeko beste aukera batzuk	FUNTS-ZUZKIDURARIK GABE	ENPRESA LANGILE-HORNTZAILAILEEN ANALISIA	EJ	2025EKO BIGARREN SEIHILEKOA
5.3.5 EAEko nekazaritza-sektorean sartzen laguntzeko gida	15.000,00	AZTERKETAREN ENKARGUA	HAZI	2025EKO BIGARREN SEIHILEKOA
5.4 Erreleboaren beharra duten nekazaritza-ustiatzeak irispidean izatea: erreleborik gabeko ustiatze bideragarrien trantsizioa erraztea.				
5.4.1 Ustiatzearen bitartekotzako bulegoak sortzea	FUNTS-ZUZKIDURARIK GABE	BITARTEKOTZAKO BULEGOAK SORTZEA	EJ-FFAA	2025EKO BIGARREN SEIHILEKOA
5.5 Gazteen instalazio-prozesua: nekazari berrientzako hasierako faseak sinplifikatzea eta egituratzea.	11.370.000,00			
5.5.1 GAZTENEK prozedura berrikustea eta hobetzea	4.570.000,00	PROZEDURA BERRIKUSTEA	EJ-FFAA-HAZI	2025EKO BIGARREN SEIHILEKOA
5.5.2 BELAUNALDIEN ARTEKO ERRELEBOA sustatzeko laguntza: ustiatzearen kudeaketa kontratu bidez instalatzen diren gazteei lagatzen dieten ustiatzearen titularentzako laguntza.	3.000.000,00	LAGUNTZA BERRIAREN DISEINUA	EJ-FFAA	2025EKO LEHEN SEIHILEKOA
5.5.3 Inbertsioetarako laguntza-planetan. FFAA: gazteentzako eta emakumeentzako baldintzak hobetzea.	3.800.000,00	FORU-LAGUNTZAK BERRIKUSTEA	FFAA	2025EKO LEHEN SEIHILEKOA
5.5.4 Laguntza fiskalak analitzea.	FUNTS-ZUZKIDURARIK GABE	LAGUNTZA FISKALEN DESKRIBAPENA	FFAA	2025EKO BIGARREN SEIHILEKOA
5.6 Instalaturako gazteek finantzaketa irispidean izatea: instalatzen diren gazteentzako finantza-baliabide egokiak bermatzea.	9.750.000,00			
5.6.1 SENDOTU finantza-tresna propioa abian jartzea.	9.750.000,00	TRESNA AKTIBATZEA	EJ	2025EKO LEHEN SEIHILEKOA
5.7 Prestakuntza eta aholkularitza: gaitasun teknikoak eta enpresa-gaitasunak hobetzea.	946.000,00			
5.7.1 Prestakuntza nekazaritza-eskolen bitartez indartzea.	FUNTS-ZUZKIDURARIK GABE	HEZKUNTZA SAILAREKIN LANTALDEA SORTZEA ETA DEIALDIA EGITEA	EJ-HAZI	2025EKO LEHEN SEIHILEKOA
5.7.2 DIGITALIZAZIOKO, AGRITECH ALORREKO eta BERRIKUNTZAKO prestakuntza indartzea.	150.000,00	PRESTAKUNTZAREN DISEINUA	HAZI	2025EKO BIGARREN SEIHILEKOA
5.7.3 ARTZAIN ESKOLA eta BEHI ESKOLA mantentzea eta hobetzea.	796.000,00	EGUNGO PRESTAKUNTZA-EREDUAREN ANALISIA	HAZI	2025EKO BIGARREN SEIHILEKOA
5.7.4 Gazteak nekazaritza-sektorean instalatzeari lotutako aholkularitza indartzea.	FUNTS-ZUZKIDURARIK GABE	PRESTAKUNTZA-IBILBIDEAREN DISEINUA	EJ-HAZI	2026KO LEHEN SEIHILEKOA
5.8 Bizi-kalitatea: landa-ingurune pertsonen ongizatea eta jasangarritasuna sustatzea.				
5.8.1 Nekazaritza-jarduera egikaritzea erraztuko duten landa-ingurune zerbitzuak eta ekipamenduak indartzea eta hobetzea: Internetarako sarbidea, etxebizitza irispidean izatea, aisia- eta kultura-ekipamenduak, ordezkatzeko-zerbitzuak, langile-zerbitzuak eta abar.	FUNTS-ZUZKIDURARIK GABE	LEADER ESTRATEGIA BERRIKUSTEA	EJ-FFAA-HAZI	2025EKO BIGARREN SEIHILEKOA
GUZTIRA	25.206.000,00			